

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Martxoak 1, 97. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**BAUTISTA
LLOPIS,
Mondra
entrenatu
zuen gizona**

Berritzeko ordua

San Andres auzoa



HOTZ - BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARRASATE PRESS ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Arantza Ozaeta, Txipi Ormaetxea.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Ospakizun arbuiagarriak

1992, zorioneko Europa desberdin hori gauzatuko zaigun urtea izateaz aparte, Cristobal Colon eta bere lagunak ustekabean Ameriketara iritsi zirenetik bostgarren mendeurrena ospatuko da. Espainiako gobernu sozialistak -espainiar nazionalismoa ongarritu asmoz- aurrekontu ikusgarria gertu zuen bere egunean, munduari konkistatzaile haien irudi positiboa(?) hedatzeko.

Minak hartu nau, gure Jaurlaritzak ere "España Universal" deritzan proiektuan esku hartzen omen duela jakitean. Minak hartu, bai, bi arrazoiengatik: gurea euskaldun besterik ez zela uste nuelako eta, bigarrenik, Ameriketara 1492az geroztik gertatutakoaz ospatu beharrean damutu egin beharko bait litzateke. Inolako demagogia zakarretan erori gabe, diodan europarroi ez dagokigula efemeride haren gaineko egitaraurik... ezta urrik ere!

Zer da "Aurkikuntzaren 500gn urtea"? Zer aurkikuntza? Baina, ordurako ez al ziren lur haietan -nik dakidanez- maia, azteka, inka eta gainerako leinu eta kulturak? Zer da, beraz, Colonek "deskubritu" zuena? Denboraren tuneletik behatzeko aukerarik begenu, ziur asko, genovarraren aurpegia harrিতa ikusiko genuke, zein -gastelar gorteko azpikoetara ohitua- indio haiengan

nabaritutako zintzotasunak zeharo txunditu zuen.

"Bi munduren arteko topaketa"?

Bai, zera Topaketak, ulertu behar den bezala, era baketsuz antolatzen dira. Eta ez da, jakina denez, hori garaiko jazoera haietan gertatu. Alderantziz, mundu konkretu baten suntsipena eman zen, garaile argi eta bakar batekin. Ordura arte lurralde haietan izandako zibilizazioak birrinduta geratu ziren; lege, ohitura, erlijio eta zigor arrotzak indarrez ezarri zitzaizkien, itsasoz bestaldetik zer zetorkien pentsatzeko astirik eman ez zitzaizen indio jator haiei.

Latinamerika ez dago gaurregun ospakizun friboloetarako. Biztanlegorik gehiena behargorrik larrinean dagoela, iraintzat hartu behar da, euren buruak nabarmentzearen inperioaren itzala gogoratu nahi digutenean ekintza. Europar akatsik arbuiagarrienean betiko desagertarazi zituzten hango baloreak. Gero, mendeetan zehar, injustiziaren ezpatak sustarretarako itzulbidea eragotzi die sistematikoki hango biztanleei, kanpoko nagusitzari bertako oligarkiarenak jarraitu diolarik.

1992an ez dago zer ospatzerik. Aitzitik, erreflexio urte bilakatu beharko litzateke, Latinamerikan eta munduko hainbat tokitan eskuz uki daitekeen era guztietako miseria z damu gaitezen.

Josemari Velez de Mendizabal



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
 Tfnoa: 79 88 75
 79 75 99

ARETXABALETA



**ETXE-
-AUNDI**

**Ostiraletan
d a s t a t u
g u r e
m e n u
b e r e z i a k**

3.500 pta. inguru

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

Ez guda, ez gudarik.

“Edo eta errege batek, beste errege baten aurka gudu egitera ateratzean ez al du lehenengo, eserita, aztertzen, hogeita mila gizonekin datorrenari, hamar milarekin ba ote diezaiokeen gogor egin? Eta ezin badu hura urruti den bitartean, mandatariak bidaltzen dizkio, bakea eskatzera.” (L.K. 14, 31-32)

Sadam Husein mundu erdi baino gehiagoren aurka gerran sartu zen. Ez dut uste zuzen jokatu duenik. Berak agian errefuxio antiatomikoa izanen du baina bere herriak ez. Galtzailea izan behar zela argi eta garbi ikusten genuen.

Aurkakoak, batez ere amerikarrak, gerra egiteko prest eta gertu izan dira hasera haseratik. Zergatik? Funtsean ekonomi arazoa izango da gogo horren oinarria. Industria belikoari irtenbidea emateko edo, material zaharra apurtu eta horrela berria egiteko beharra piztu... Hori alde batetik, eta munduan nork agintzen duen ager arazteko ere izan daiteke gerra hau. S.S.E.B. ahuldu-ta daudelarik, Europa bakarra izan daiteke itzala USAko haunditasunari egin diezaiokeena eta USAk protagonismoa bere gain hartu nahi izan du. Edo ta izan daiteke gerra hau kapitalismoaren krisi ziklikoak gainditzeko.

Zergatik gu gizonok hain basatiak garen gure arrazakoen aurka edo zergatik gizon batzuk ezabatu behar dituzten beste gizon batzuk, ez dut nik erraz adieraziko.

Gerra inbento kulturala da eta gerrarekin heziketak zerikusirik badu. Heziketa batzuk gerrarako dira. Guda Santuak Gerra egitea eskatzen du. Eta berdin gertatzen zaio gure sartaldeko heziketa konpetitiboari... Eztabaidak edo elkarrizketaren bidez edo indarke-riaren bidez konpontzeko heziketa eman dezakegu. Gure herrian guda heziketa sakon sakonean sartua dago. Gu gara herri bat non denek gudariak izateko gogoia izaten duten. Ohorerik handiena gudaria izatea izan da eta da. Gudariak gerra egiteko dira. Gure herrian heziketa belikoa nabarmena da...

Ni ez naiz gerra zalea eta oso erraza iruditzen zait aholku onak ematea. Gudak ezer gutxi konpontzen du. Gerra egin beharrean justizia egin dezagun, bakoitzari zor zaiona eman diezaiogun, eta hori izan daiteke pakearen oinarria. Gerrarekin gorrotoak eta bengantza

hartzeko gogoia sortzen zaigu. Gerrarekin bakea ez da lortzen, hurrengo gerrarako oinarriak jartzen dira.

Jose Mari Mendizabal

Roneon aparteko ordu ugari

Roneo Enpresan, ordu estrak direla eta, alarmagarria sortzen ari zaigulako, Enpresako Komiteak langileei deialdia zabaltzen die, gai hau hausnar dezaten sakonki. Iaz, 1990ean, 20.973 ordu estra egin ziren Roneon.

Langile batzuk onartzen dute Zuzendaritzak bultzatzen duen praktika hau, eta esan behar dugu, langile batzuk 750 eta 1.000 aparteko ordutara ailegatu direla. Bestalde, gure inguruan langabezia gehitu besterik egiten ez denez, denen erantzuna izan behar luke ezezko borobila ordu estrei.

Enpresako Komenioak 40. atalean dioenez, Zuzendaritzak aparteko ordurik ez egiteko obligazioa hartzen du, dituen beharrak behin behineko kontratazioekin konponduz. Hemendik sortzen da langileei egiten diegun eskakizuna. Praktika horrek alde batera uzten duelako erreibindikazio garrantzitsuenetariko bat: kontratazio berriak. 1990ean egindako aparteko orduekin 11 langile kontratatzeko posibilitatea egongo litzateke.

Komitearen jarrera ezaguna da, komenioa egin zenean erakutsi zuen bezala. Enpresak 90 eta 91an 20.000 aparteko ordu egiteko posibilitatea eskatzen zigun eta Komiteko partaide guztiok arbuia genuen eskakizuna.

Halako gertaerarik ostera pasa ez dadin, legeak ematen dizkion posibilitateak erabiliko ditu komiteak, komenigarri ikusten duen moduan, enpresaren aurka.

Roneo S.A.ko enpresa komiteak

M. Irizarri bihotzerrerik gabe

Bestelako gerrak tipografikoak baino gehiago interesatzen bazaizkizu, badaukazu nora joan. Adibidez Persikokoak letxe txarra kentzeko balioko lizuke.

Bale?


R. Ugalde

Arrasateko kultur eskaintza, zer?



Itziar Rubio
(Ikaslea)

Ez dakit zer esan, baina behar beste gauza egiten direla iruditzen zait.



Jose Rojas
(Gozogilea)

Nire ustez, gauza gehiago antolatu beharko litzateke, antzerkia eta antzerako modak.



Jon Salaberri
(Euskara ikaslea)

Gauza gutxi egiten dira, baina herri txikia denez... Jendeak antolatzen duen beste dago. Niretzat ez da nahikoa, baina gehiago egiten ez bada, guztion arazoa da.




Marta Bernardo
(Ikaslea)

Nire ustez gauza gehiago egin beharko lukete, dagoena nahiko ondo badago ere.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren 20,
Tfnoa: 79 80 90 ARETXABALETA

MemesA

79 42 22

KOPIOTXOA

Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Especialista)	77 12 64
(Txanda hartzeko)	77 03 46
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (lberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



1

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "El principiante", 7 eta 9.30etan.
- Organo kontzertua, San Juan Bataiatzailearen parrokian, Aitor Olearen eskutik, arratsaldeko 8etan.
- Antzerkia, "Juego de niños", Amaia antzokian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Amezua, Santamaina. -gauz: Mozos, Bergara.

2

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "El principiante", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Andalucía eguneko ospakizunak egun guztian zehar.
- Txomin Iturberen omenez jaialdia, bertsolari eta kantariekin, Amaia antzokian gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Aurora Ruiz, Maala. -gauz: Camacho, Bergara.

3

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "El principiante", 5, 7.30 eta 10etan.
- Jaialdia, Heriotza eta Mano Negra taldeekin, Musakolan, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Morales, San Andres. -gauz: Camacho, Bergara.

4

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "El principiante", 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia, "Hezkuntzaren erreforma", Erguin Eskolan arratsaldeko 6.30etan.
- Hitzaldia, "Baltikoko herrialdeen egoera. Lituania, Letonia, Estonia", Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Kontxi Martinez Uribarrenen lanen erakusketa Monterronen.
- Goardiako farmazia: -egunez: Azkoaga, Ferrerías. -gauz: Puy, Bergara.

5

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "El principiante", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Español, Iturriotz. -gauz: Guallar, Bergara.

6

ASTEAZKENA

• • •

- Hitzaldia, "Haurren elikadura", Erguin Eskolan arratsaldeko 6.30etan.
- Hitzaldia, "Emakumea eta gerra: Palestinar arazo", Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Corcuera, Musakola. -gauz: Estella, Bergara.

7

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Irizar, Erguin. -gauz: Mozos, Bergara.

Kirol Agenda

FUTBITOA

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne 12 partidu, larunbat eta igandea bitartean.

SASKIBALOA

• • •

- Mailaz igotzeko fasea, Centraljet Euskal Air eta Juven taldeen arteko partidua, Musakolako kiroldegian, igandean eguerdiko 12etan.

PILOTA

• • •

- Gipuzkoako klubuen arteko txapelketan Arrasate eta Idiazabalgo taldeen arteko partidua, Musakolako kiroldegian, larunbatean goizeko 10.30etan.
- Pala partidua. Larunbat arratsaldean eta igande goizean bost partidu Musakolako frontoian.

Liburuak

Dorian Grayren erretratua
Irakurmendi bildumako sail gorriari dagokion hirugarren liburua duzu, euskaltegieta 7. urratsetik edo BBB eta LHRako programazioaren 6. mailatik aurrera irakurtzeko aproposa, goiko mailari dagokiona, beraz. Iñaki Mendigurenen itzulpena.



Lord Henryren hitz zorrotz eta arriskutsuek mundu beldurgarri batera eramane zuten Dorian Gray gaztea; mundu hartan garrantzitsuagoa zen ederra izatea zintzoa izatea baino; afalosteak jendeari barre eragiteko moduko izanez gero behintzat.

Erakusketa

Kontxi Martinez Uribarren margolari arrasatearrak bere lanen erakusketa jarriko du Monterronen, martxoaren 4etik 14era bitartean. Ikustera joateko, ordutegi honetan izango dituzu ateak zabalik: lanegunetan arratsaldeko 18etatik 20etara eta jai egunetan berriz 12etatik 14etara eguerdiz edo 18etatik 20etara arratsaldez.



JAIA

Andaluzia eguna

Andaluzia eguna dela eta, larunbaterako Al Andalus Elkarteak jai-giroko ekintzak prestatu ditu, Musakofako kiroldegian burutuko diren ekintzak. Al Andalus Elkarteoak egunari lehiaketa batez emango diote hasiera, 11.30etatik aurrera "Haurren Sevillana" lehiaketa burutuko da eta. Ondoren, goiz partekoa bukatzeko, dantza jaialdi ikusgarria, Lore Gazteak, O's Galaicos, Grupo de Danzas extremeño, Sueños de Andalucía, eta "Al-Andalus" abesbatzarekin.

Arratsaldeko 5.30etatik aurrera, helduentzat Sevillana lehiaketa egingo da. Hori bukatu eta gero, flamenco jaialdia, Mari de Linares eta Paco Guerrerok abestu eta Rafael Martínez de Nervak kitarra joko dutelarik. Egunean zehar egindako lehiaketetako parte hartzaileentzako sariak eman ondoren, gaueko 9etan afaria egiteko aukera. Afalosterako erromeria, Cordobako "Los de Sierra Morena" taldearekin. Argi dagoenez, Oie! egiteko bezalako egitaraua.

Euskalduntzea

"Egonaldiak Familia Euskaldunetan" plangintzan parte hartzeko interesa duten familia euskaldunentzat laguntzak bideratu ditu Kultura eta Turismo sailak. 1991ko uztailetik azarora bitartean, hilabeteko egonaldiak egingo dira, eta familiakide guztiek euskara jakitea ezinbestekoa da. Lagun bat mintzapraktika egiteko etxean hartuko duten familiei 50.000 pta emango zaizkie hileroko eta egonaldia burututako ikasle

bakoitzeko. Izena emateko epea martxoaren 27an amaituko da, eta apirilaren 19an emango da argitara onartutako familien zerrenda.



Mitin -jaialdia

Txomin Iturbe zenaren heriotzaren laugarren urtemuga betetzen dela eta, Arrasateko Herri Batasunak, biharko mitin-jaialdia antolatu du. Mitin-jaialdia Amaia antzokian burutuko da, eta hasiera gaueko 10etan emango zaio.

Xabier Zubizarreta, Rafa Diez, eta Jon Idigorasek mitinaren zama eramango duten bi-



tartean, Kaxiano, Xabier Amuriza, Jon Sarasua, eta Anje Duhaldek jaialdiarena eramango dute. Sarrera dohainekoa izango da.

Gerraren aurka

Golkoko gerra bukatu bada ere, Arrasateko Golkoko Gerraren aurkako batzordeak datoren iganderako, maratoi antzerako bat antolatu du. Ekintza honi goizeko 9etan emango zaio hasiera, Portaloian. Oñati, Bergara, Osintxu eta Sorluzetik pasatu ondoren, Eibarren herri bazkaria eginez bukatutzat emango da. Bakoitzak bere bazkaria eramane beharko du.

Arrasateko Golkoko Gerraren aurkako batzordekoak gerraren aurka dauden guztiak gonbidatu nahi lituzke ekintza honetara, eta parte hartzea korrika edo bizikletan egin badaitete ere, azken honek garraribide egokiagoa dirudi.

“Guztiarekin ere, konpetitibo izan behar dugu’. Mahai inguruan zehar Javier Mongelosek esandako esaldi horrek, argi uzten du Arrasate Kooperatiba Taldeko lehendakari eta Fagorreko zuzendari orokorraren ikuspegia. Koopertiba taldeak 22.000 langiletik gorako plantila du bere industria eta banaketa (Eroski) arloetan, Lan Kide Aurrezkoa kontuan izan barik.

Politika monetario, azpiegitura eskas eta konpetentzia desleiala bezalako puntuetan enpresen aktibitatea erabat testuinguru negatiboan garatu behar izaten dela eman zuen aditzera Mongelos jaunak. Hala ere, enpresek euren gestio teknikak hobetzeko ahalegin handiak egin beharra azpimarratu zuen, eta Ekonomi Elkartearen barruko marko konpetitibora egokitzeko gai izan daitezela, Elkartean esportazioa ez bait da esportazio, barne merkatu bakarreko salmenta baizik”.

(Javier Mongelosek El Diario Vasco egunkarian)

“Aurretiaz, Aretxabaletako Almen eskolak deuseztu egi zuen bertsolariak berezko hutsez sortzen direla zioen mitoa. Bertsolari eskola horretatik pasatako ikasleak izan ziren txapelketaren lehen edizioan gehien nabarmendu zirenak, eta gai horretan sartzera animatu zen Ikastolen Federazioa. Irakasleak, eguntan hamarkadaren balantzea egiten ari direnak, Patxi Goikolea, Xanti Iparragirre eta Juanito Akixuren, Almenen eskola ematen jardun zirenen ondorengo zuzenak dira”.

(Bertsolaritza eskolan mahaingurua, Egin egunkarian)

Zeintzuk izan daitezke Arrasateko populazio beherakadaren arrazoiak?

Arrazoi asko egon daitezke, baina nire ustez nagusienetarikoa gazteek etxebizitza erosteko gaur egun merkatuan duten prezioarengatik beste herri batzuetara aldegitia aipagarria da. Orain ez behar bada hainbeste, baina duela bost urte inguru, Aretxabaleta aldera familia askok alde egin zuen, hango etxebizitza eskaintza erosoagoa zelako. Bestalde, bada zenbait jende, pisu batean bizi izatekotan hirira joatea nahiago duena, hiriak eskaintzen dizkion zerbitzu pila eta eskura dituen eskaintzek gehiago erakartzen dutelako, nahiz eta Arrasate ere zerbitzu aldetik nahiko ondo dagoen herria izan. Gasteiz, adibidez, jende asko hartzen ari da. Hemen ez daukagu jende horrentzako kontrapartidarik, etxe unifamiliarrik edo adosaturik. Etxe eredu hori zenbaiten amets bihurtu da, eta hori hemen lortzerik ez dagoenez, nahiago du pisua hiriburuan izan. Etxebizitzarekin lotutako arrazoi bi horiek eragina dute, beraz.

Bestelako arrazoiak ere badira. Alderantzizko emigratio mugimendua hasia dago, zenbait jende bere herrira itzultzen ari da eta, herrian etxea edo moldatzeko hemen baino modu merkeagoa daukatelako. Batzuk jubilatutak dira, eta lanpostu finko barik dauden seme-alabak ere joaten hasi dira eurekin. Jubilazio aurreratua ere hor sartzen da.

Beste alde batetik, jaiotze tasak ere asko egin du behera, eta hori ere nabaritzen hasi da, zer esanik ez.

Konxi Malet,
soziologoa.



LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

ZUBIZARRETA
TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Bergara

• Udalak antolatuturik, astelehenetik ostiralera bitartean "Zuhaitz eguna 91" burutuko da. Ikastetxetako umeek Elosuan eta Ugarrixan 500 zuhaitz landatuko dituzte, gaztain, pago, eta haritzak batez ere. Horretaz gain, ekologiari buruzko zenbait informazio emango zaie umeei.

• Errolda berritzear dagoela aprobetxatuz, Udalarekin harremanak euskaraz bakarrik izan nahi dituztenen errolda egingo da. Udalaren asmo hori gauzatzeko, 16 urtez gorako euskaldunei eskutitza bidaliko zaie, asmo horren berri emanaz. Ados egonez gero, herritarrek padroiko orriak betetzerakoan Udaletxera joan beharko dira.

• Orain arte, Jardun elkar-teak herrian 300 bazkide lortu ditu.

• EA eta HBren botuei esker, Udalak azoka berri-rako proiektua eta Santa Marina inguruko urbanizazio proiektuak onartu zituen. Azoka berriaren proiektuak 215 milioiko aurrekontua dauka.



Oñati

• Datorren hilaren 8a arte, hala nahi duten guztiek "Europa 93" erakusketa ikusteko aukera izango dute Kultur Etxeko erakusgelan. Erakusketaren helburua, Jaurlaritza eta Aldundiek Europako merkaturan integrazioa lortzeko daukaten proiektuei buruzko informazioa ematea da.

• Astelehenetik aurrera, padroi berria egiteari ekingo diote Oñatin, bost urte bete dira eta azken aldiz egin zenetik. Azken datuen arabera Oñatiko herriak 10.890 biztanle inguru zeuzkan.

• Gobernu Batzordeak onartu zuenez, Oñatiko Udaletxeko areto nagusian altzariak aldatuko dira. Altzari berrien kostua, zazpi milioi pezetakoa da. HBko ordezkariak zienez, altzarietan gastatuko dena gehiegi da.

• Eli Galdos, Oñatiko alkateak "Gure Udalak" Herri Irratiko programan hitz egingo du, bihar hamaiketatik aurrera.

Eskoriatza

• Astelehenean hastea pentsatuta bazegoen ere, Aste Santua pasatu arte, ez zaie Eskoriatzako San Pedro parrokia berritzeko obrei ekingo. Zolua jaso, hormak txukundu, pintura lanak egin, berogailua berritu, argi gehiago jarri, eta megafonia hobetzeko asmoa dago. Joan den astean parrokiatik gauzak ateratzeko laguntza eskatu zitzaizen herritarrei, eta 50en bat agertu ziren lanerako prest. Parrokiako obrak dirauten bitartean elizkizunak Irakasle Eskolan egingo dira.



ARRARAN

UMEEN JANTZIAK

**Martxoak 2, larunbata
arratsaldeko 6etan
INAGURAZIOA**

Zure zain gaituzu

Otalora 29, Tfnoa: 77 05 61 ARRASATE

SANIDES

Parasitoei aurre egiteko
Intsektu narraztiak akabatzeko,
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

□ AEDren Batzarra

AEDren batzar nagusia martxoaren 8an, arrtsaldeko 7etan izango da Monterron jauregiko hitzaldi aretoan. Aztertuko direnen artean, 1990eko diru kontuak, zuzendaritza batzordeko kide batzuen hautaketa, balorazio orokorra eta galde erantzunak. Bileran partaide-tza eta eztabaida eskatzen zaie bazkideei. Bilera ondoren afaria izango da Txalalparta elkartearen, 1.500-2.000 pta inguruan, eta gazte eta langabetuentzat 1.000 ptan. Izena ematea datorren osteguna baino lehen egin behar da AEDn, eta bazkide guztiei luzatzen zaie afaritarako gonbitea.

□ Santa Agedako koruak

Santa Agedako koruek, ohi bezala, Santa Ageda bezperako diru bilketan rekorda ezarri dute, azken marka 1.093.000 ptatan ezarri dute. Iaz batutako kopurua 920.000koa izan zen, eta horri aurreraturik zeukaten 555.000 pta. gehituaz, ia milioi eta erdi erabili ziren beharrean daudenei laguntzeko.


□ Igerilekuak

Osakidetzak igerilekuei ezartzen dizkieten garbitasun eta osasun baldintzen barruan, Arrasateko Kiroldegiko igerilekuetan ere hainbat konponketa eta berrikuntza egin behar izan dira aste honetan zehar, Jaurlaritzatik agindutako baldintzak betetzekoan. Datorren astelehenean izango dira berriz ere igerilekuak jendearentzat zabalik, uraren berritzea ere egin ondoren. Igerileku handian 626 metro kubiko ur sartu dira, eta 60 txikian, eta ura garbitzeko putzu bakoitzari iragazkailu bereziak ipini dizkiote, garbiketa bakoitzak bere aldetik egin dezan. Konponketa eta eguneratze guztiaren gastua zenbatekoa izango den oraindik zehaztu barik egon arren, 70 milioi ingurukoa izango ote den esaten da.

Txandaka

TXOMIN FTURBE

Txominen heriotzaren IV urtemuga bete zaigu. Martxoaren 2an Arrasateko herrian eskainiko zaio urteroko omenaldia, ahaztu ezingo dugun herriko semeari. Zor diogu horrenbeste Euskal Herria eta bere Arrasate beti gogoan eraman zituen herritarri.



X. Zubizarreta (*)

Txomin Euskal Herriko Historiara pasa da.

Bizitzan ezagutu ez duen askok eta askok, bere heriotzaren ondoren ezagutu dute eta ezagutuko ere.

Ekimen handiko gizona; bere gogo-soin osoarekin (eta galantak zituen biak ere, alajaina!), erakarriz, ekintzara eramaten zuen. Bera zen lehena egiten.

Txantxetarako nahiz elkarrizketarako hitz jario onekoa bazen ere, ez ordea adierazpen luze eta konplexuetan aritzekoa.

Solaskide bikaina zen, baina ez zuen monologoa maite. Hitza laburra eta direktoa; batzuetan kupidagabea. Intuzioz bete zen. Sentsibilitate handiz eta hausnarketa luze baten ondoren lortzen dena. Informazio biltzaile etengabea. Hala ere, dena ezin ba harek ere, eta idazle murrizta izan genuen.

Kanturako ordea, gaitasun aparta azaldu zuen txikitandik eta frantziskotarren koruan ikasi eta iharduna ez zitzaien ahaztu.

Berak gogoratuko zigukeen bezala, "Euskal Herriko txoria" izatearena egia zen; kantuan bezalaxe bere nortasunak zituen adierazpide guztietan gainera,

kantari bezala, bere garaia erabat markatu zuen kantuz osaturiko diska bat grabatu zuten, Mamarru, Maite eta berak.

Kirola izan zuen beste zeregin garrantzitsu bat. Futbola eta pilota; lehen UD eta Mondra taldeetan jokatu zuen, atezain gisa. Ezin jasan izaten zuen galtzea eta ez

zegoen txantxetan iharduterik bere inguruan "Etxe-zuriko lotsa izango haiz, dios..." ziotsan bere buruari, galtzea suertatu zitzaien batean. Grina hori zatekeen agian, bide bat izatera bultzatu zuena? Sakonago zerbait adierazteko, hau ezinbesteko hitza da. Liderra. Egin eta eragiten zuena.

Ez diogu ekin ere egin lan honi, bukaeran gaude, espazioaren mugaz.

Ez zen, dena den gaurkoaren intentzioa, Txomini buruzko gauza berri askorik esatea; gaurko hau gogamen huts bat izan da, baina ETako militante eta lagun horren bizitza zerbait arakaten hasten naizenero sentipen bera datorkit. Erraldoi baten aurrean egotearena, alegia. Ikusi baino ez dago, 25 urteren buruan, zenbat eta zenbat une garrantzitsutan azaltzen zaigun bere irudia, artzai txabola batean multikopista batez ihardun zuenetik, Algerian uskaldunon enbaxadari bukatu zuen arte.

Noiz ekingo diogu bere bizitzaren nondik norakoa aztertzeari? Mereziko luke.

(*) HBko kidea

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 69 72 ARRASATE



150 lanpostu inguru gutxitu dira Luzuriagakoak kontuan izan gabe

Kooperatibetan langileak gutxitu

Luzuriagakoak hartu barik


Arrasate Kooperatiba taldeak 150 lanpostutan gutxitu du iazko urtearekin gonbaratuaz. Hala ere, Luzuriaga enpresaren lanpostuak kontuan hartu behar direnez, ez da kopuruetan galararik gertatu, TU-Lankide aldizkariak kaleratu berri dituen datu batzuk diotenez.

Arrasate Kooperatiba taldea bere osoan hartuz gero, industria alorreko kooperatibek sufritu dute gehien 90eko atzerakada, 150 lanpostu inguru galduz, eta ondoen joan direnen artean, kontsumo kooperatibak aipatu behar, Eroski batez ere.

Artikuluaren aipatzen denez, krisi egoera honek zerikusi handia izan du Estatu eta nazioarte mailako ingurune ekonomikoaren egoerarekin. Estatu mailako jaitsierari aurre egiteko, indartu egin behar izan dira esportazioak.

Taldearen inbertsioak, bestalde, %27an igo ziren iaz, aurreko urtearekin alderatuz gero.

LANGILEEN KOPURUAK



Luzuriagaren emaitzak kontuan izan barik, taldearen salmentek %9,7an egin zuten gora 90ean. Industri kooperatibek %5,6an igo bazituzten salmentak, Eroski berriz %23.

Usteak uste

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak *Ikastola* izeneko aldizkari berria atera du aste honetan, bertako irakasle eta gurasoen artean doan banatzeko. Aldizkariak itxura polita du, maketa argia eta planteamendu garbiak.

Bada, hala ere, aldizkariaren aurkezpenean txokatu ninduen zerbait. Aldizkari honen 50.000 ale banatuko dira hilerio, hau da, euskaraz gehien zabaltzen den aldizkaria baino dexente bider gehiago. Tirada horrekin, *Ikastola* aldizkaria pastel benetan tentagarria da ikastoletako munduan publizitatea egin nahi duen iragarle eta saltzaile askorentzat.

Aukera hori aprobetxatu nahi izanez gero, Ikastolen Elkarteak ez luke arazorik izango erdi epean publizitaterako eskari-kartera potoloa egiteko, horrela aldizkaria bere osoan edo zatirik handiengan autofinantzatuz. Bide batez, sekulako mesedea egingo lieke bai euskarari eta baita publizitatearen munduari ere, orain gutxi artean elkarrengandik urrunduta bizi izan diren munduak.

Hori egin ordez, publizitatearen munduan sartzeko beldurrez edo, betikoengana joan dira hiru publizitate orrialde betetzeko eta horiekin ezingo direnez ordaindu aldizkariaren gastuak, ikastolei eskatuko diete zuloa estaltzeko. Publizitateak ordain lezakeena ikastolek ordaindu beharko dute.

Joxe Aranzabal

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Oraindik ere baimen barik daude azokako saltzaileak

Saltzaileak erantzunaren zain

Subasta lehiaketak ordezkatzera onartu Udalak

Ez da ia aldaketarik izan Azokako saltzaile ibiltari eta Udaleko ordezkarien artean aste honetan burutu den bileraren ondoren. Udalaren aldetik, saltokiak banatzeko erabiltzeko erabakita zegoen subasta sistema alboratu eta lehiaketarena erabiltzea proposatu zen. Horrez gain, lehiakideen aldeko puntuazio baremo bat ezarri da. Baremo horren arabera, Arrasateko azokan daramaten urte bakoitzeko puntu erdia emango zaie saltzaileei -horrela 10 puntu ere lor ditzakete batzuk-. Profesionaltasuna ere kontuan izango da, puntua urteko, gehienez ere bost atera

daitezkeelarik. Euskara jakiteak ere Otiak 3 punturainoko balorea izango du.

Saltzaileen eskakizunetako beste zenbait puntu aztertu barik utzi ziren astearteko bileran, subasta -lehiaketakoarekin eztabaidak izan zirelako. Orain, datorren astelehenera arte itxaron beharko da saltzaileen jarrera zein den jakiteko, egun horretarako hartu dute eta konpromezua fax bidez erantzuna emateko.

Gogoratu saltzaileei joan den abenduaren 31an amaitu zitzaizela azokako saltokiak erabiltzeko lizentzia, aurrez jarritako epean subastan sartu ez zirenez.

□ Zentso eta Errolda

Martxoaren leetik aurrera etxez etxe joango dira Udaletxeko 17 langile, zentso eta padroi berria egiteko datuak biltzeko asmoz. Langileok Udalaren langile direla dioen egiaztagiriak joango dira, eta euren lana errazteko zuen kolaborazioa eskatzen zaizue herritar guztiei. Horretarako, nortasun agiria eta famili liburua eskura izatea eskatzen da, datuak errazteko. Galdetuko direnen artean, familiakide bakoitzaren izen deiturak, jaiotze data eta lekua, ikasketak eta lanbidea izango dira.

Gogoratu nahitaezkoa dela, legez, norbera bizi den herriko erroldan egotea. Gainera, Udalarentzat mesedegarri izateaz gain, herritarrarentzat ere badu abantailarik erroldan egoteak, bestela ezin bait daiteke ziurtagiri, dirulaguntza edo bekarik eska.



□ Ibilgailuen gaineko zerga

Otsailaren 21etik apirilaren 12ra bitartean, ibilgailuen gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea irekiko da, eta ondoren derrigorrezkoa.


JAIOTZAK

Rodríguez Gallego, *Arantxa*, otsailaren 16an.
Cucalón Telletxea, *Jennifer*, 18an.
Narvaez Martín, *Ander*, 19an.
Sánchez Aguado, *María Isabel*, 20an.
Alonso Santiago, *Alvaro*, 24ean.
Devesa García, *Iván*, 22an.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Arrasateren geografia, historia, etab. bilduko ditu "Arrasate, nire herria" liburua

Arrasateri buruzko liburua

Argitalpena atzeratu Kutxaren bategitearengatik

"Arrasate, nire herria" liburua apirila aldean kaleratuko da seguruenik, Kutxaren bategiteak bere argitalpena atzeratu ondoren. Liburua Kutxako argitalpen sailean dago eta erakunde horrek Udalarekin tirada eta kostuari buruzko hainbat xehetasun zehaztu bezain azkar bidaliko da inprimatzera.

Liburua Eskoriatzako Irakasle Eskolako Iñigo Ramirez irakasleak egin du eta Deba Garaiko Mankomunitateko hainbat herriri buruzko liburua egiteko ideietan lehena izan da. Oñatikoa ere ia eginda dago, eta beharbada hurrengoak Mankomunitatea izan dezake

gaitzat. Liburuak helburu bikoitza izango du egilearen esanetan: alde batetik eskoletara begira gida didaktiko bezala, eta bestetik edozein herritarrentzat Arrasate aurkezteko modu erakargarria izatea. Horretarako, grafiko, marrazki eta azgazki ugari izango ditu, eta ematen den informazioa ere euskara hutsez eta ahalik eta modurik errazenean ematen saiatuko dira. Liburarekin batera irakasleentzat gida ere kaleratuko da, eta liburaren atal ezberdinen artean, Geografia, Historia, Artea eta Etnografia daude, eta baita ilustrazio gisa balioko duen diapositiba sorta ere.

Atez-ate

Arrasateko etxebizitzaren errolda egiten ari da argazkiko mutila. Josu Pereda deitzen da, eta zure etxeko atea jotzera badator, irekiozu, Udalaren izenean joango da eta. Datozen hiru hilabeteetan zehar, Arrasaten zenbat etxebizitza huts ote dagoen jakiteko egiten ari den ikerketarekin jarraituko du, Diego Arriaranen orde. Josuk agronomia ikasketak egin zituen Billaban eta 24 urte ditu.



Josu Pereda

Onduline

TXOMIN HERIZ

URALITA

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



H A U R T X O A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE



Euskalduntze lanean ahalegin bereziak egin du eskolak

Erguin eskolaren X. urteurrena

Hainbat ospakizun aste osoan zehar

Erguin Eskolaren hamargarren urteurrena dela eta, datorren astelehene-tik ostiralera bitartean, bertan zenbait ekintza burutuko dira. Asteko ekintzei hasiera emanez, astelehenean arratsaldeko 6.30etan Aitor Orobengoa, hezkuntza zinegotziak, hitz batzuk esango ditu, eta ondoren "Hezkuntzaren erreforma" gaia jorratuz Benjamin Atutxak hitzaldia eskainiko du.

Asteazkenean ere, hilaren 6an, "Haurren elikadura" gaiaz Eroskiko Kontsumo Saileko ordezkariaren batekin hitzaldia egingo da.

Jai giroko ekintza gehienak larunbat goizean burutuko dira, goizeko 10etatik 2ak bitartean, eta eskola irekita egongo da instalazioak eta ekintzak ikusi nahi dituzten guztientzat. Iñaki Perurena harrijasotzen, trikitalarien saioak, Gimnasia Erritmikoaren erakustaldia, eskulanean erakusketa... eta beste hainbat gauza egingo dira jendea gustora egon dadin.

Hamar urteko bizitzan, auzoko hezkuntza, azpiegitura, eta euskalduntze arazoei irtenbidea ematen saiatu da bereziki Erguin Eskola.

Ura eta zaborrak

1990eko laugarren hiruhilebeteari dagokion ur, zabor eta estolderia zerbitzuaren tasa borondatez ordaintzeko epea zabalik dago, marxoaren 1etik apirilaren 12a bitartean, biak barne. Epe hori pasatakoan, %20ko gainzerga ordaindu beharko da.

Besaide

Besaideko bazkide federatuei jakin arazten zaie aurtengo federatu karne-tak iritsiak direla Besaideko lokaletara, eta oraindik jasotzera joan ez direnek, asteartero izango dituzte lokalak zabalik, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara bitartean.

Organo kontzertuak

San Juan Bautista parrokiak organo kontzertu sorta baten eskenatoki izango da, martxoan zehar. Gaur, hilaren lehen eguna izango da lehena, eta 8an eta 22an jarraipena.

Korrika Batzordea

Arrasaten Korrika 7 Batzordea osatu duten herriko elkartearen artean honako hauek, besteak beste: Dantza taldeak, EPP, Besaide, AED, EKI, Al Andalus, Tailaginak, Ikastetxeak, Komite Internazionalista, Hankapaluak, Espelologia taldea, Ikarus, Konpartsak, Dultzaineroak, HB eta Amnistiaren aldeko Gestorak. Dagoeneko 6 kilometro salduak ditu batzordeak.

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

ARAMAIO
okindegia
Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46



Argkia: J. O.

U

dako beroak kerizpetarako gonbitea egiten du, eta zelai zabal eguzkitsuko zuhaitz bakarrak erakarri edonor, baita animaliak ere, jakina.

Naturaren elkarbeharrak hitz egin zuen norbaitek. Gu ere natura ote? Oraindik bai, nik uste. Egia da hain lasaitasun bakartia nekez aurkituko du-

zula inguruotan, baina argazkikoek bezala gozatzen jakin behar aurkitutakoan. Eguzki galdatan elorripeko abaroa gozo.

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.


Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuen du bere K serieko motore berrian -16V GTi-an-aleazio arinaz egin 95CVko indarra eman liezaiokeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100




* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garraso-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko isplua eskutsean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko llantak. Aurreko lehoien jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Doluntza lunbarra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.



CREDIT



Joan den astean sari berezi bat ematea izan zen Arrasateko MECA tailerretan. Espainiako banatzaile sare osoak egiten duen zozketan **Felix Díaz Bodegas** jaunari egokitu zitzaion telebista, eta Justi Bujandak eman zion. Zorionak!



Nazioartetik egiten dizkiguten ikustaldien artean, lekutatik etortzen dira batzuk! **Cristina Ramos** brasildarra da, gurasoak andaluzak baditu ere, baina munduan zehar makina bat buelta egiten ari da aspaldion. Ikaragarri gustatu zitzaion Euskal Herria, eta "hemen giro berezia dagoela, atmosfera berezia usaitzen dela" dio.



◀ 1985ean atera zuten argazkia hiru belaunaldiek Udalaitez puntan. **Jon Ugalde, Jon Ander** bere semea eta bi iloba txiki horiek urteroko erritua betetzen dute Pilarika egunean, goizeko 6etan irten eta goraino. **Amets**ek 6 urte zituen argazki hori atera zutenean, eta **Julenek** 3 bakarrik. Hain txikia izan arren, bera bakarrik joan zen, eskutik helduta, baina bizkarrean joaterik, pentsatu ere ez. Bost urte pasatu direnez, bidea buruz ere jakingo dute biek!

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE

Saski Naski lehiaketaren barruan dendariak egin duten zozketa nagusiak badu, dagoeneko, irabazlerik. **Amaia Aranzabalek** eskuratu zituen argazkian ikusten diren sari guztiak. Oraingo, bukatu da sariketa, baina nork daki? Beharbada... berriz egiten bada, akaso zeu izango zara zorteduna! ▶




Izen PROPIOAK

● **Unai Kabiketa**, 8, arrasatearra. Zuhaitz eguna ospatzeko Gipuzkoako Diputazioak antolatutako ormirudi lehiaketan hirugarren saria eskuratu du Unai, bere adinekoetan. San Antolin ikastolako ikaslea da, eta aurkeztu zuen lana margoz egina zen. Zuhaitzak botatzea, erreken kutsadura eta euri azidoa hatu zituen gaitzat.

● **Jose Mari Velez de Mendizabal**, 41, aramaioarra, Euskaltzaindiko Jagon saileko partaide izendatu berri dute. Arrasaten bizi den idazle honek zortzi urte zermatzan Euskaltzaindian, urgazle bezala. Euskal Idazleen Elkateko Lehendakari izan da.

● **Pedro Mendieta**, 53, atxabaltarra Jauraritza berriko Hezkuntza sailera doa, likereta eta Hezkuntza arloko Gobernu programaren koordinatzaile. Pedro Aretxabaletako Alkate da gaur egun, eta Copreci, Ularko eta Fagorreko injinerutza sailean ibili da lanean. Hezkuntza sailburu orde ere izana da.

▶ **Pitxones** talde arrasatearrak kontzertua eskaini zuen joan den ostiralean Bergarako Pol-Pol tabernan. Lokala beteta eta musiko taldea entzuleak bezain gustora. Badirudi arrakasta izan zutela euren bigarren irteeran, eta ez dadila azkena izan!



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



BONBOIAK



FRUITU LEHORRAK
Otalora 2, ARRASATE

San Andres, zer hintzen eta non hago?

Azterketa sozioekonomikoa burututa, berregokitza penaren egiteko auzotarrak animatu beharra dago. San Andresekin ez gaude ahaztuta.

Hasiera

Orain bi urte sortu zen Udala eta Suradesa elkartean hirigune zahararen berregokitze prozesuak beste auzo batzuetara ere hedatu zitekeela. 50-60 urtean industrializazioaren eraginez eta etxebizitzaren premia larriak eraginda sortutako auzoak dugu San Andres. Bera aukeratu zuten, eraikuntza motarik zabalena duelako: San Josepeko etxeak, bajua eta bost solairutakoak eta altuera ezberdinetako dorreak. Hasieran datu demografikoekin lan egin zen eta adin piramideak aztertzerakoan, 35 eta 40 urte bitarteko bizilagunetan behar handia somatu zen, eta jende kopuru handiena 50 eta 65 urte bitartekoa da, jubilatua edo laster multzoan jubilatuko direnak. Auzoko jende askok Arrasateko beste auzo batzuetara alde egin duela ikusi zen biztanleen jarraipena egitean. Hitz batean, auzoaren historia, bilakaera eta egungo egoera aztertu zituen Kontxi Malet soziologoak.

Proiektua egin aurretik

Ondoren auzotarrek inharreman zuzena izan zen, hirugarren fasean Eusko Jaurlaritzaren laguntza, arkitekto bi kontratatu aurretik. Auzokoekin informazio biltzea egin zen inkesta bidez: komunitateek nola funtzionatzen duten, bigarrenik auzoari buruz

dituzten kezkei buruzko galdeketa, eta hirugarren mailan, bakoitzak bere etxebizitzan zer obra egin duen, egin asmo duen eta egin nahiko lukeen. Datu horietan oinarrituta atera ziren zer lan mota izango liratekeen benetan egin beharrekoak, eta aipatuener artean, isolamendu termikoa, igogailua eta hezetetasunaren

isolamendua. Behar horien arabera hasi dira lanean arkitektoak, honako lau egin-kizunok aztertuko direlarik: etxebizitzaren barne egitura, ahal bada aldaketak eginez, sarbiderako proposamenak (igogailua, atartea eta eskaileraren itxitura), fatxada eta instalazioak (berokuntza, iturgintza eta elektrizitatea).

Dirulaguntzak eta beste alde on batzuk

Eskema hori jarraituaz, planoak egingo dira tipologia bakoitzarentzat. Hortik aurrera gutxi gorabeherako aurrekontua egin eta ondoren erabaki ahal izango du komunitate bakoitzak zenbaterainoko obrei egin nahi dien aurre. Oraingoz, erreabilitazio isolatuari ematen zaizkion dirulaguntzak lortuak dira Eusko Jaurlaritzatik, eta jendearen erantzunaren arabera laguntza orokorrak lortzerik ere izango litzateke, San Andres osoarentzako tratamendu singularra lortzea, alegia. 65 urtetik



San Andresen, mota eta altuera guztietako etxeak daude.

gorako eta 30etik beherako bikoteentzat, bestalde, dirulaguntza bereziak bidetzeko modua dago.

Herriaren trama urbanoaren barrua oso ondo kokatua egoteaz gain, Arrasaten lautadan dagoen auzo bakarretakoa da, eta eguzki begia gainera. Etxe txikiak izan arren, herrian dagoen apartamendu txikien eskabide handiari irtenbidea emango dion auzoa izan daiteke, behar bezala egokitu eta hornitu ondoren.

Auzoaren kezak

Auzotarrek pozez hartu zuten hasieran ikerketa guztiaren eta berregokitzapenari buruzko proiektua, baina denbora luzea pasa da, eta "ahaztuta, esperantza galduta bezala daude".

Berritze proiektuak aurrera egin dezan, auzotar guztien partaidetza beharko da

Gogoia eta itxaropenak berritzeko dirulaguntza itxurazkoak bidetzea egin behar da Juan Antonio Barriocanal auzo alkateak eta Aitor Guridiren ustez. Gainera,



Aparkalekuena arazo larri bihurtu da San Andresen.

azterketa erabat ere positiboa dela eta "aurrera aterako al da!" behin eta berriz dioten arren, badituzte euren zalantzak guzti horrekin ez ote den etxea teilatutik egiten hasi. Izan ere, lehenago konpondu beharreko arazo asko ikusten dute, eta zenbat eta gehiago luzatu, gauzak atzeratuko diren beldur dira. Bien bitartean, adin piramidea aldrebestu egin da, eta auzoa jubila-tuen gordeleku izateko arriskuan dagoela erizten diote. Hala ere, ateratzen diren ondorioak aterata ere, "berrikuntzak egitea da funtsezkoa, eta horretaz jabetu egin behar da jendea gainera, batzuk hastea da oinarritzkoa, besteak anima

daitezen".

Auzo alkatetzaren eritziz, San Andresekin ahaz-

tuta egon da Udala aspalditik eta herrian babesik gutxien duena da; eurak orain zirikatuta eta zirikatzen ari badira ere, ez ei da gauza handirik lortzen. Lorategiak, etxe arteko patioak, kaleak ipinkiz josita, oraintxe arte umeentzat jolas parkerik eza, plazak txukundu eta aprobetxatu beharra... jartzen dituzte adibide, eta egin diren lanak ere zatika eta zuloak estaltzeko egiten direla esaten. Aparkalekuaren arazo ere oso larria omen da, Ahizkera datorren jende mugimendurekin areagotua. Garajeena ere irtenbiderik eman ez zaion arazo da, eta horretan auzotarren aldetik ere laguntasun handirik ez dagoela diote, inon baino merkeago eskaini arren borondaterik ez dago eta jabegoan nahi ditu jendeak.

Mugida, mugida handia

Lastima iruditzen zaie auzotarrei bertakoentzat aktibitate ezberdinak martxan jartzeko hain lokal eskaintza urria izatea. Izan ere, San Andres omen da Udalaren lokalik gutxien duen auzo arrasatearra, eta auzo alkatetzakoa besterik ez ei daukate talde ezberdinen jardunerako. Horrez gain, beste hiru lokal daude erabilpen gutxirekin, noizean behingo bilera eta biltegi moduan erabiliak: Ehiza eta arrantza, Halterofilia eta Espeleologiakoa.

Bitartean, auzoan benetako mugimendua jartzen ari den taldea, xakekoa, auzo alkatetzaren egoitza erabiltzen ari da, egunero gaztez beteta. Eta gauzak egiteko gogo handiz dago jendea. Liburutegiak ere bere lokala behar du, dauden liburuak erabiliko badira...

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46 ARRASATE



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ




Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

egizabal

Bidekurutzeta 13,
BERGARA

Elisabete



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia


- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala




Eraginik gabeko partiduak

Ahaleginak egin zituzten talde guztiek puntuak eskuratzeko, baina hala ere, sailkapenetan ez da aldaketarik.

Partidua irabazi eta iruditzen zaizu beste aurrerapausu bat egin duzula sailkapena lortzeko. Gero konturatzen zara besteek ere gauza bera egin dutela, eta zure garaipenak ez duela balio berezirik izan.



JMA VMA




ILLARRAMENDI

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12





A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	4	4	0	0	43	8	8
Artzankos	4	3	1	0	20	12	7
Bar Artano	4	2	1	1	21	14	5
Camerun's	4	2	0	2	13	18	4
Kriskibalda	4	1	1	2	16	15	3
Zortzikin nahiko	4	1	0	3	16	31	2
Potrozorri	4	1	0	3	12	23	2
Autovia patutia	4	0	1	3	12	32	1



Sum. industriales Ugarte. Ezkerretik-eskumara. Zutik: Iñaki Olaizola, Juan Miguel Mendieta Ugarte, Jon Otxoa, Enrike Mendieta. Makurtuta: Aitor Perez Guridi, Juan Garcia Azkoaga, Goio Eskibel, eta Luis Usatorre.

B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Golfos Persicos	4	4	0	0	12	7	8
Arrasate Kirolak	4	3	1	0	13	8	7
Adelaida	4	2	2	0	16	15	6
Fosforo's	4	2	1	1	11	10	5
Bizkorrak	4	1	1	2	8	8	3
Sokoa 600	4	0	1	3	16	19	1
Alperrak-Aldatz	4	0	1	3	8	15	1
Lorategi-Potroak	4	0	1	3	8	15	1



Bar Artano. Ezkerretik-eskumara. Zutik: Prieto, Aurelio "Gordi", Iñaki Unamuno "Tse-tse", Joxe "Mesias", Ander "Buyo", Mark "Stoichikov". Makurtuta: Juan Carlos "Pibe", Sebe "Camello", Alex "Goiko", Roberto Ortiz "Lertxundi".

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Sum. Ind. Ugarte	4	4	0	0	18	7	8
Zuloak	4	3	1	0	13	8	7
Bar Kajoi	4	3	0	1	25	15	6
New Laso Arregis	4	2	1	1	15	18	5
Pepelus	4	1	0	3	15	19	2
Los Heredia	4	1	0	3	10	16	2
Diego Antonio	4	0	2	2	12	20	2
Rayo Vatica-no	4	0	0	4	11	16	0

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPIZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

Indarberritu den lehoi arrasatearra



RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahilitzuke.

• 1929. ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aulkietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

ASTELEHENA

ASTEARTEA

ASTEAZKENA

OSTEGUNA

4

- Hitzaldia: "Baltikoko herrialdeen egoera: Lituania, Letonia, Estonia". Hizlariak: Pablo Sastre eta Jokin Apalategi. Monterronen. 19.00.
- Pintura erakusketa: Kontxi Martinez Uribarren. Monterronen. 12ra arte.
- Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerías Gaez: Puy (Bergara)

5

- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz Gaez: Guallar (Bergara)

6

- Hitzaldia: "Mujer y guerra: la causa palestina" Hizlaria Claudia Noemi Narocki emakume israeldarra. Monterronen. 19.00.
- Goardiako farmazia. Egunez: Musakola. Gaez: Estella (Bergara)

- Ikastaroa: Bolibol (Bergara)
- Goardiako farmazia. Egunez: Gaez: Mozos (Bergara)

11

- Hitzaldia: "Irakaskuntzaren hizkuntz ereduak eta ondorioak" Monterronen. 19.00.
- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz. Gaez: Guallar (Bergara).

12

- Hitzaldia: Jabier Urkola: Burmuinaren hamarkada. Otalora-Ikasbiden. 18.30.
- Hitzaldia: Drogomenpekotasunari buruzkoa. Monterronen. 19.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: Musakola Gaez: Estella (Bergara).

13

- Europa 93 erakusketaren hasiera. Monterronen. 20ra arte.
- Goardiako farmazia. Egunez: Erguin. Gaez: Mozos (Bergara)

- Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina. Gaez: Camacho (Bergara)

18

- Goardiako farmazia: Musakola.

19

- Goardiako farmazia: Erguin.

20

- Goardiako farmazia: Santamaina.

- Korrika Arrasaten 19.00.
- S. Viator Ikasbide Bazarra 18.30.
- Goardiako farmazia: Maala.

25

- Goardiako farmazia: Erguin.

26

- Goardiako farmazia: Santamaina.

27

- Goardiako farmazia: Maala.

- Goardiako farmazia: Iturriotz

OSTEGUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

1

- Organo kontzertua: Aitor Olea. Parrokian. 20.00.
- Antzerkia: Prod. Udaberriren "Juego de niñas". Amaian. 22.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina.
- Gauetz: Mozos (Bergara).

2

- Andaluzia eguna: Kiroldegian.
- Txomin Iturberi omenaldia Amaian. 22.00.
- Pilota: Arrasate-Idiazabal Musakolan. 10.30.
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia. Egunez: Maala.
- Gauetz: Camacho (Bergara)

3

- Gerraren aurkako maratona: Arrasateko Eibarrera. Partakian: 8.00
- Musika: Mano Negra eta Heriotza. Kiroldegian. 19.00.
- Saskibaloia: Centraljet Euskal Air- Juven. Musakolan. 12.00
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia. Egunez: San Andres
- Gauetz: Camacho (Bergara)

7

- Emakumearen Nazioarteko Eguna.
- Manifestazioa. Seberon. 19.30.
- Emakumeentzako jaiak: Jai Zalen.
- Merienda-hitzaldia: Emakumeari buruz. Santamainan. 16.00.
- AEDren Batzar Nagusia. Monterronen. 18.00 eta aforia Txalaparta Elkartean. 21.30.
- Organo kontzertuak: Guritze Uribarren eta Tere Gonzalez. Parrokian. 20.00.
- Zinea: "Muerto al llegar". Amaian. 22.30.

9

- Eskubaloia: Arrasate-Eraintza. Musakolan. 18.30
- Futbitoia Zaldibarren.
- Euskal dantzak: Gasteizko Adurtza eta Arrasateko Lore Gazteak. Amaian. 22.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: San andres
- Gauetz: Puy (Bergara)


10

- Futbola: Mondra-Pasajes. Atxabalpen. 16.30.
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerias.
- Gauetz: Puy (Bergara).

14

- Zinea: "Hablando con la muerte". Amaian. 22.30.
- Goardiako farmazia: Egunez: San Andres
- Gauetz: Puy (Bergara).

15



- Saskibaloia: Centraljet Euskal Air-Barañain. Musakolan. 18.00
- Pilota: Arrasate-Lasarte. Musakolan. 10.30.
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia: Ferrerias.

16



- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.

17



22

- Arraste Pressen 100. zenbakiaren aurkezpena. Monterronen. 19.00
- Organo kontzertuak: Organo eta gaita. Iruñeko gaiteroak. Parrokian. 20.00.
- Arrasate Press Jaialdia. Kiroldegian. 22.00
- Goardiako farmazia: Ferrerias.

23

- Eskubaloia: Arrasate-Ormaiztegi. Musakolan. 6.30.
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.

24

- Futbola: Mondra-Galdakao. Atxabalpen. 16.30.
- Pilota: Aretxabaleta-Arrasate. Aretxabaletan.
- Irristola Txapelketa. Zaldinarren. 16.00
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia: Musakola.

28



- Zinea: "Ultimos días de la víctima". Amaian. 22.30.
- Goardiako farmazia: Musakola.

29

30

- Pilota: Arrasate-Inxaurreondo. Musakolan. 10.30.
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia: Santamaina.

31



- Aterri Eguna.
- Futbitoia Zaldibarren.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.



Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

**Euskadiko
Kutxa**



Besterik badirudi ere, argazkikoak ez dabilta trikitixa dantzatzen, baloia harrapatu nahian baizik. Ikuskizun polita izaten da futbitoarena, aukera eta gol ugariz gain, nohiz behinka jarrera estetiko arraro samarrak ere ikusteko beta izaten delako. Begira bestela.

EMAITZAK

A taldea

Argi Ibili 20	Autovia Patutia 3
Bar Artano 4	Kriskibalda 4
Potrozorri 2	Cameruns 7
Artzankos 8	Zortzikin nahiko 4

B taldea

Bizkorrek 2	Golfos Persicos 3
Alperrak Aldatz 0	Adelaida 5
Lorategi Potroak 2	Fosforos 4
Sokoa 600 3	Arrasate Kirolak 4

C taldea

Zuloak 3	Rayo Vatika-no 2
Bar Kajoi 6	Pepelus 7
New Laso Arregis 2	Los Heredia 7
Sum. Ind. Ugarte 5	Diego Antonio 2

ATEZAINAK

Jesus Moreno Saria

Migel Galan



• 7 gol: Miguel Galan (Golfos Persicos) eta Javier Murguzur (Sum. Ind. Ugarte).

• 8 gol: Angel Elkorobarrutia (Argi Ibili), Jose Miguel Perez (Arrasate Kirolak), Carlos Ros (Bizkorrek), Iban Guridi (Zuloak).

OPEL 
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.

Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86


Lorategi
Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ALCANADRE
TABERNA



GURE LEKU
taberna

Zarugalde kalea, Tfnoa: 79 20 29

ZENBAKI SARITUA:
25.828

Ebaki eta gorde txartel hau!

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitiin.

Trikiti

SOINUA • BIDEOA • T.Ba • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

35691



Txutak

Gauzak aldatzear

Joan den ihardunaldiari begira aipamen pare bat: bata sorpresa bakarra *Los Heredia-ek New Laso Arregis*-i irabaztean eman zela, eta bestea *Argi Ibilik Autovia Patutia* taldeari eman zion jipoi, hogei gol sartuz. Horretaz aparte, ez zen ezer aipagarrikerik gertatu, sailkapenetan aldaketarik eman ez zelarik.

Hurrengo ihardunaldian seguruen aldaketak emango dira. A taldeari dagokionez, lehen eta bigarren sailkatuaren arteko partidua jokatu da: *Argi Ibili-Artzankos*.

B taldean gauza bera gertatu da, eta gainera bigarrenak hirugarrenarekin jokatu du. Ondorioz, neurketak, *Golfos Persicos-Arrasate Kirolak*, eta *Adelaida-Fosforos* dira.

B taldean gertatzen den bezala, C taldean ere sailkapenean lau lehen postuetan daudenek jokatu dute, *Suministros Industriales Ugarte-Zuloak*, eta *Bar Kajoi-New Laso Arregis*.

Beraz, datorren asteburuko partiduetako emaitzek aldaketak eragingo dituzte sailkapenean. Horretaz gain, oraingo txapelketa irabazteko favoritotzat jotzen direnei beste inork irabaziko dien ere ikusteko balioko dute datorren asteko partiduek.

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Argi Ibili	Artzankos
Bar Artano	Potrozorri
Autovia patutia	Zortzikin nahiko
Kriskibalda	Camerun's

B taldea

Bizkorak	Sokoa 600
Alperrak Aldatz	Lorategi Potroak
Golfos Persicos	Arrasate Kirolak
Adelaida	Fosforos

C taldea

Zuloak	Sum. Ind. Ugarte
Bar Kajoi	New Laso Arregis
Rayo Vatika-no	Diego Antonio
Pepelus	Los Heredia

GOLEGILEAK

Mikel Otxoa Saria



Elizaran

15 gol. Jose Martin Elizaran, (Argi Ibili).

8 gol. Roberto Ortiz (Artano)

7 gol. Jesus Mari Zudaire (Bar Kajoi).

6 gol. Jon Errasti (Zortzikin nahiko), Endika Murumendaraz (Sokoa 600)

**LUIS
CORRA
SALVARREY,
S. L.**



Instalazioak eta produktuak:

- Galbanizazioa
- Bibraziozko leunketa
- Pinturak
- Urak

Galdakaoko Errepidea 2, 3. Tfnoa: 94 - 416 04 70 BILBO



URONDO ELEKTRIZITATEA

Nafarroako Etorbidea 11,
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



ROVER

**SAN ANDRES
AUTOAK**

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98
ARRASATE



Bautista Llopis

Kasualitatez Mondra entrenatu zuen gizona

Nahiz eta berak Valentzian jaiotzea nahia-goko zukeen, familia gehiena han jaiotakoa delako, Bautista Llopis Salamancan etorri zen mundura. Bizitzak ematen dituen buelten poderioz, Arrasaten ere urtebete egin zuen bizitzen. Denbora horretan Mondra taldearekin lotura handia izan zuen. Orain Bergaran dago, berak egindako tren batzuen maketak erakusten. Baliteke Arrasatera ere etortzea, berak horrela nahiko luke behintzat.

— Zer dela eta etorri zinen Arrasatera?

— Beno, txikitandik lotura handia neukan aitarekin. Berak auto-txokeen pista zeukan eta herriz-herriz ibiltzen ginen biok. Gipuzkoara sarritan etortzen ginen, eta beste hainbat herriren artean Arrasatera etortzen ginen, San Juanetan beti. Gipuzkoan ezagutu nuen lehen herria Oñati izan zen. Hilabete terdi besterik ez neukan hara eramanez nindutenean.

— Eta Arrasatekiko lotura?

— Aita urtero-urtero San Juanetarako etortzen zen, eta lagun handiak egin zituen. Berarekin batera Arrasateko

jendea ezagutuz joan nintzen. Oso garai polita izan zen, baina aita hil zenean, auto-txoke pista utzi egin nuen, maisu industrialak izanik, hura ez zelako niretzat.

Auto-txoke pistarekin ez ginen urte osoan ibiltzen, eta hortaz, Bejarren bizi ginenez, bertan egin nituen ikasketak.

— Urtean behin etorrita, nola lortzen da Mondrako entrenatzaile izatera iristea?

— Esan bezala, Arrasaten jende asko ezagutzen nuen. 1970. urtea zen, eta jende horrekin berriketaldi

borobila izan, sailkapen taularen erdikaldean bukatu genuen eta, baina ederki ibiltzen ginen.

— Urte hartako gauzarik politena zein izan zen?

— Ez dakit gauza bat bestea baino hobea zen esaten, baina gustora asko gogoratzen dut Erdiko Kalean zegoen kafetegia, han kitarra hartu eta sekulako parrandak egiten genituelako. Kitarra jotzeko Logroñoko lagun bat eta biok biltzen bait ginen. Hori bai, hark ni baino hobeto jotzen zuen. Eta Mondrak

aipagarrienak zeintzuk izango lirateke?

— Jokalari onak zeuden arren, ez dut uste hemen ze biltzanetatik inor atera zenik. Orduan oso zaila zen, beste modu batera jokatzeko, balaioa aurrera bidaliz ea inork harrapatzen zuen. Gaur egun askoz ere teknikoagoa da, estrategia gehiagorekin.

— Orain maketagile?

— Futbolarena betidanik zaletasun bezala hartu dut, eta pistaren asuntoari ez nion etorkizun handirik ikusten. Ikasi ere zerbaitetarako ikasi nuen, eta elektroniketan maisu industrialak naizenez, maketa proiektuan sartu nintzen, eta orain berau erakusten nabil handik eta hemendik.

— Eta hortik eguneroko ogia atera daiteke?

— Lehenik esan behar dut maketa Renfek enkargatu zidala, baina gero eurekin ez nuela akordiorik lortu. Maketa egiteko urtebete baino gehiago egin nuen, eta Renferekin akordiorik lortu ezean, herrietan erakusketak eginez errentabilitatea eman behar niola bururatu zitzaidan. Bergaran egunez egun jendez gainezka egoten da berau, eta ziur nago Arrasatera eramanez gero, gauza bera gertatuko dela. Poztuko nintzateke.

eman zidan plaka ere ederki gordeta daukat.

— Hain ondo ibilita, hemen betirako gelditzeko asmorik ez zeneukan?

Urtea pasatu ondoren, aita itzuli zen eta berriro harekin joan nintzen, nire beharra bait zeukan. Gainera, gurasoen etxea ere banuen, eta norberaren jaioterriak betik dauka zerbait berezia.

— Garai hartako jokalaria

“**Erdiko Kaleko kafetegian kitarrearekin sekulako parrandak egiten genituen**”

ugari izaten nituen. Futbola ere askotan jorratzen genuen gaia zen. Niri beti gustatu izan zait, eta uste dut futbolari dexentea ere izan naizela. Beraz, Mondra entrenatzen laguntzeko proposamena egin zidaten eta nik onartu egin nuen, ezer kobratu barik, jakina. Aita bere auto-txoke pistarekin joan zen, eta ni hemen gelditu nintzen. Egia esan, ez zen oso denboraldi

Txirrindulari Eskola denboraldi aurrean

Laurogei ume sei taldetan banatuta

Eskoriatza, Aretxabaleta, Gatzaga, eta Arrasateko mutil eta neskek biltzen ditu Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak. Denboraldiari hasiera eman aurretik, urtero bezala, eskolako taldeen aurkezpena Dorletako Amaren Santutegian egingo da, aurturten martxoaren 16an.

Dorletako Ama Txirrindulari Eskola 1974ean sortu zen, eta ordutik hona makina bat txirrindulari pasa dira bertatik. Eskolak aurtengo denboraldirako 2.400.000 pezetako aurrekontua dauka, Udalak, gutxi gora behera, kopuru horren %10a ordaintzen duelarik. Gainontzeko dirua errifak egin, babesleak lortu, postulazioak egin... eta antzerako ekintzak bultzatuz ateratzen dute.

Hastear dagoen denboraldian laurogeiren bat neska-mutiko ari izango dira



Beti bezala txirrindulariak prest daude denboraldiari begira

eskolan, sei taldeetan banaturik. Alebin, benjamin eta infantiletan 35 txirrindulari daude. Kadetetan, eskolak bi talde dauzka, lehen urtekoena, 8 mutilez osatua, eta bigarrenkoena, 10 mutil eta bi neskek osatua. Azkenik, gazte mailako taldean 17 dira ibiliko diren txirrindulariak.

Txirrindulari eskolako egiturari begiratu gero, aurreko urtekoarekin konparatuta, gauza aipagarrienak afizionatu taldearen desagertzea eta neska gehiago ez aritzea izango lirateke.

Beste hainbat elkartetan bezala, dirurik eza arazo larria da, baina jenderik eza

larriagoa. Zortzi pertsona ibiltzen dira mutikoekin, eta alde horretatik etorriko litzateke arduadunen eskaria: Arrasaten txirrindularitzaren alde lan egin nahi duen edonork, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolarekin harremanetan jartzearekin badue la horretarako aukera.



Xipri botilero

Urta eta Irazolaren arteko pilota partidua jokatu zen pasa den astelehenean Tolosako Beotibar frontoian, bigarren mailako profesionalen eskuz-eskuzko txapelketari zegokion partidua, hain zuzen. Irazola atxondotarrak, Arrasaten taxista dagoenak urte luzeetan, egundoko jipoia eman zion Urrari, 22 eta 3 irabazi bait zion. Eta nor izango Irazolaren botileroa? Bada, Xipri famatua, eta dirudienez Irazolari ez zitzaizkion gaizki etorri Xiprik emandako aholkuak. Hor duzue adi-adi jokoari begira.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak



Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

PODIUMA

IÑAXIO
GARRO

**Teknikaz
baliatzen den
beteranoa**



Iñaxio Garrok 27 urte dauzka, eta 15 futboleant eman ditu, federatu bezala, zeren bestela askoz ere gehiago izango lirateke futbolari eskaini dizkionak. Hainbeste urte futboleant ibili ondoren, ez da arraroa orain uzteko-tan egotea. "Futbolaz ez naiz nekatu, baina beste gauza batzuk egiteko gogoia daukat. Jendeak uste baino gogorragoa da futboleant egitea, beste gauza batzuk egiteko aukerarik ez dizu ematen eta. Ateratzen zara lanetik, eta ia zuzenean entrenamendura joan behar, beste ezer egiteko astirik gabe. Gainera, gero asteburuak ere horretara eman behar dituzu".

Federatu aurretik, futbol jokalaria gehieneak bezala, eskolako taldean ari izan zen Iñaxio Garro, Almeneko taldean hain zuzen. Atxabaltarra izanik, federatu gisa jokatu zuen lehen partidua UDAko pre-jubenil mailako taldearekin jokatu zuen. Poliki-poliki, adinean aurrera, mailaz igotzen joan zen Aretxabaletako taldeko ekipoetatik pasa delarik. Aretxabaletan urte piloa egin ondoren, aldatzeko erabakia ere hartu zuen Iñaxio Garrok, Mondrara etorriz. "Aspertuta nen-

goen, eta aldatzeko garaia iruditu zitzaidan. Geroztik hemen nabil".

Ezaguna da Iñaxio Garroren jokoa Mondrako zaletuen artean, eta berak honela definitzen du. "Uste dut jokalaria motela naizela, geldoa. Nire ezaugarri nabarietak tokea eta jokorako bista izango lirateke. Zelaiko edozein postutan joka dezaket, baina egoera fisiko onean egonaz gero zelai erdian jokatzea gustatzen zait".

Mondrako zaletuek, aurrendenboraldia ikusirik, izugarrizko ilusioz espero zuten jokatzen ari den denboraldia eta taldeak ez die ilusio horri eusteko aukerarik eman. "Ez dakit zer gertatu zaigun. Bazirudien partidu guztiak irabazi behar genituela, baina irregularrak izan gara. Entrenatzaile berria daukagunetik zorte txarra izan dugu, baina hemendik aurrera ez dugu partidu asko galduko. Lau lehenengoen artean sartzea zaila izango da, puntu dexenteko abantaila daukate, baina saiatuko gara".

◆ Euskadiko Xake Txapelketa

San Andres Xake taldeak antolatutarik, apirilaren 1etik 7ra bitartean Arrasaten Euskadiko Xake Txapelketa burutuko da. Txapelketa honetan Euskadiko 30 jokalaria hoberenek hartuko dute parte, euren artean nazioarteko maila daukatenak. Euskadiko Txapelketa horren antolamendua dela eta, San Andres Xake taldeak lagundu nahi duten arrasatear guztien laguntza eskertuko lukeela esan nahi du.

◆ Arrasatearrak Euskadiko Kros Txapelketan.

Almeneko zelaietan burutu zen Euskadiko Kros Txapelketetan, arrasatearrek egin zuten aipagarriena beterrano mailan Jesus Eskibelek lortutako lehen postua izan zen. Senior mailan berriz, Javier Menchaca 26.a izan zen, eta 27.a Enrike Kabiketa

◆ Ia txapeldunak Anoetan

Anoetako pistetan kadete mailako Euskadiko Txapelketak burutu ziren joan den asteburuan. Mila metrotako frogan, Alex eta Gabi Saavedra anaiek hartu zuten parte. Alexek bigarrena izatea lortu zuen, 2.41.45ko denboraz, eta Gabik laugarrena 2.42.62ko denboraz. Entrenatzaileak zioenez, bi anaiek ez dira gehiegi entrenatzen duteneta-rikoak.



Alex eta Gabi Saavedra anaiek



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Lennon-en "Imagine" autobiaren deialdean

Imajina dezagun


Imajina dezagun Lennon hil zuen bala hura azken orduan desbideratu egin zela eta ez ziola sahiets bat apurtzea besterik egin. Lennon bizirik egongo zatekeen, beraz. Hala ere ez zukeen jakingo Euskal Herria non dagoen. Seguru asko, badenik ere ez. Askok jota San Sebastian izena ezagutuko zukeen, Elton John eta Dylan behin banatan bertan kantuan arituak zirelako.

Imajina dezagun, hala ere, Lennon bizirik egoteaz aparte Euskal Herriaren berri zehatzik baduela. Kasu horretan, hemen ditugun arazo nagusi

sien berri izango zukeen, eta horien artean autobidearen arazoarena. Ez noa profetarena egitera, esanaz Lennek eritzi hau edo bestea izango zukeenik arazo honi buruz. Ez noa horretara. Baina, kontestu imajinario horretan eta deskuido santuan, Lennek jakin izan balu bedeinkazio eta bitarteko guztiakin antolatutako manifestaldi instituzional baten deialdirako "Imagine" kantua erabiliko zela, ziur nago sekulako kabrea hartuko zukeela, eta hain gustoko zituen numerito haietako bat prestatuko, bere protesta azaltzeko.

Izan ere, badakigu mu-

sika eta musikariak maiz erabiliak izaten direla kausa baten edo bestearen alde. Badakigu hitzak eta ideiak zentzu oso ezberdina har dezaketela segun eta nork jaurtitzen dituen. Badakigu sistema guztietan edozein mailatako agintariak zenba-



teraino abilak diren herriarengan eragina izan dezaketen ikurrak asimilatzen eta beraien helburuetarako erabiltzen, ikur horien atzean dagoenari jaramonik egin gabe.

Guzti hori badakigu, jakina. Baina "Imagine" autobiaren aldeko deialdian erabiltzea sekulako pasada iruditzen zait, edonola ere. Gauza asko imajina dezaket, eta aurreko lerroetan doa horren muestra. Baina ezinezkoa zait Lennon Ardanza eta Urralbururen tartean imajinatzea, pankarta eskue-tan eta "Imagine" kantatzen. Benetan ezin dut.

Mikel Irizar

Trikit ren **ESKAINTZA BEREZIA**

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

	LEHEN	ORAIN
PHILIPS M. 6270 25" TELEBISTA	117.500 pta.	99.500 pta. + PUBLIZITATEA
NAKAMICHI A2, CD-3, C2, JBL LX - 22 kajak MUSIKA EKIPOA	272.070 pta.	227.070 pta. + PUBLIZITATEA
ONKYO TX-822, TAR-W400, DX 1.400, KEF C-55 kajak, MUSIKA EKIPOA	196.415 pta.	167.075 pta. + PUBLIZITATEA
ALPINE 7288 MM, 5952 S, AUTORAKO IRRATI CASSETTE, CD,	188.335 pta.	130.000 pta. + PUBLIZITATEA

Batuta

Jose Antonio Villar


"Ni musika mundura iristea kasualitate hutsa izan zen -dio Jose Antonio Villarrek- ogibidea ateratzeko beti beste gauza bat egin behar izan dudalako. Hala ere, musikarekiko lotura gogorra izan da".

Ahots ona zuela eta, amonak besotik helduta eraman zuen Oñatiko parrokiara, organistarengana mutikoak elizan kantatu ahal zuen galdetuz. Baietza eman zioten, eta ahots ona zuenez, koruko tiple bakarlarri jarri zuten, 11 urte arte horrela ibili zelarik.

Ikasketen bidean aurrera Nafarroako Alesves herrira joan zen, maristetan ikastera. Kitarra, mandolina, bandurria eta horrelako musika tresnak jotzen ikasteko aukera izan zuen, tuna bat prestatzeko agindua eman bait zioten.

Hogei urte zituela Antzuolako maristetara pasatu zen eta bertako abesbatzaren zuzendari egin zuten. Maristak utzi eta beste bide batzuetan egin zuen aurrera, beti ere musika munduari lotuta.

"1960. urtean Oñatin zortzikotea egin genuen, berarekin Gipuzkoako



eta Euskadiko txapelketa irabaziz. Musika mota horretaz gain, musika arina deitzen zenean ere zerbait egin nuen. Kitarra hartu eta denetarik musika egiten nuen, Iparragirrerren abestiak, musika mexikarra, tangoak... uzten zutena. Hara eta hona kantuan ibiltzeko baimena ere eskatu nuen, eta ez zen erraza, examina eta guzti egiten zuten eta. 'Artista de teatro, circo y variedades' nintzela zioen karnetean".

Musika arinaren munduan ez zen bakarrik ibili Jose Antonio Villar eta Arrasate Orkestra ere sortu zuen, jaialdi, ezkontza, eta diskoteketan jotzen zuelarik. Musika eta Jose Antonio Villarren bizitzak pareko bidea egin dute, eta horregatik ez da arraroa *"musikarekiko sentsibilitate berezia daukat, ez gaitasuna baina bai sentsibilitatea"*, dioen esaldia bere ahotik entzutea.

Artista de teatro, circo y variedades nintzela zioen karnetak

Txio txioak

✦ Parisera bibolina ikastera

Ane Miren Axpe, 13 urteko arrasatearra Pariseko bidean da. Dirudienez, Ane Mirenek bibolina jotzeko orduan aparteko gaitasuna dauka, eta gaitasun hori ahalik eta gehien hobetzeko Parisera joan da, bertan bibolina irakasteko berezitasuna duen irakaslea izango duelarik.

✦ Zuzendaritza aldaketa

Aretxabaletako "Aretxabaleta" abesbatzako zuzendaritza batzordean aldaketak egin dira, zuzendaritza berria ondorengo hauek osatzen dutelarik: Ricardo Garro, Joseba Lasagabaster, Mariatzen Urkia, Mari Karmen Etxeandia, Maite Ortiz de Zarate, eta Javier Zalofia, presidentea azken hau. Zuzendaritza berria bi urtez izango da karguan. "Aretxabaleta" abesbatzan 41 lagun daude ofizialki, baina kantatzen dutenak 35 dira.

✦ Kontzertua Aretxabaletan

Lesakako Abesbatzak eta Aretxabaletakoak bihar larunbatez, arratsaldeko zazpi terdietatik aurrera Agustindarren komentuan kontzertua eskainiko dute. Sarrera dohainekoa izango da.

✦ Gorosarri eta Arrasate Musikal

Eskoriatzako Gorosarri Abesbatza eta Arrasate Musikaleko orkestra datorren astean entseiutan hastekotan dira, martxoan elkarrekin egin behar dituzten emanaldiak ahalik eta hoberen prestatzeko. Hilaren 22an Getxora joango dira, 23an Basaurira, eta 26an Durangora.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Umeak eta euskara

Umajina dezagun Albaceteko edo Berlingo haur batek nola ikasten duen hizkuntza. Haurra jaioberria delarik hasten da hizkuntz estiloak jasotzen, urteak igaro ahala zenbait eta estimulu aberatsagoak jaso, orduan eta hobeto ezagutuko du bere ama-hizkuntza, orduan eta aberatsago erabiliko. Azken finean, bere ama-hizkuntza bereganatzea eskilara automatiko batean joatea bezalakoa da, gizarteak darama haurra prozesu horretan, haurra eroso doa eskilara horretan eta astinaldi bortizik gertatzen ez bada, Albaceteko edo Berlingo haurrak beste-

rik gabe joango dira burutuz bizitzan zehar euren prozesua. Aipatu ditugun bi toki horietara bertako hizkuntza ama-hizkuntza modura ez duen haur bat baldin badoa ere, bertan biziz gero luze gabe ikasiko du (edo ikasi beharko du, nahi baduzue).

Hizkuntza bat baino gehiago daudenean lurralde batean (Euskalerrria, adibidez) prozesua ez da hain erraza izaten: haurrak ama-hizkuntza modura ikasi duena lurralde horretako hizkuntza minorizatua bada (euskera kasu) prozesua ez da orduan eskilara automatiko patxadatsua. Bi urte egin aurretik ohartzen da haurra hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen direla bere

inguruan; eta lau urterekin, honez gero konturatzen da bi hizkuntza horien arteko ezberdintasun sozialez. Hau da: bere gurasoek berari euskaraz egiten diote eta euren artean erderaz egiten badute, haurra konturatu egingo da; konturatu egingo da bere hizkuntza ez dela kalean, komunikabideetan erabiltzen dena, eta gizartean nagusi diren ereduak imitatzen saiatuko da hurrengo urteetan. Aurreko batean aipatzen genuen "gezur sozialaz" ume-umetatik hasten da konturatzen. Etxean eta eskolan euskerazko ereduak jaso arren, inguruak etengabe erderazko ereduak dakartzkio, eta azkenean badakigu zer gertatzen den: haur

horrek hobeto menderatzen du eginkizunik gehienetarako, *gaztelera euskara baino*.

Aldi berean, ama-hizkuntza euskara ez duelarik, euskara ikasi nahi duen haurrak (B eredu) ahalegin berezia eta edadearekin konszientea beharko du egin euskeran aberriratzeko ingurugiroak ez dio gehiegirik lagunduko eta. Haur honentzako ikasketa prozesua aldapa luzea da, nekagarria, ekinaren ekinaz baino igoko ez duena.

Beraz, zenbat eta heldu konsziente gehiago izan, zenbat eta euskal komunitate sendoagoa egon, orduan eta aldapa bigunagoa Arrasateko haurrentzat ere.

Atalataikoan

ORGANO KONTZERTUAK

Martxoak 1, ostirala


- Organojolea: AITOR OLEA JUARISTI

Martxoak 8, ostirala

- Organojolea: GURUTZE URIBARREN AXPE
- Kontraltoa: TERE GONZALEZ LASA

Martxoak 22, ostirala

- Organo eta gaita: JOSE LUIS eta ELENA FRAILE
(Iruñeko gaiteroak)



Antolatzailea: Arrasateko Udala. Laguntzailea: San Juan Bataiatzailearen Parrokia eta Arrasateko gaiteroak.
Babeslea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Pablo Letona



Apaiza

Urte bete baino gehiago dauka Pablo Letonan autoak, eta denbora horretan istripu handi bat izan du. “*Karabanan gindoazen, eta halako batean atzeko autoak kolpea eman zidan. Urduri jarri zen eta freno zapaldu beharrean bi aldiz azeleratu egin zuen, hiru kolpe beraz*”. Eskerrak orotarako aseguru zuenari. Autoestop egiten duten guztiak geratzen omen ditu, eta ez omen da bizkorregi ibiltzen, “*lehen baino polikiago, adinean ere aurrera goaz eta*”, baina bizkorregi joateatik behin multa ipini zioten.

OMENALDIA


Hizlariak:

- X. Zubizarreta
- Rafa Diez
- Jon Idigoras


JAIALDIA

- X. Amuriza
- Jon Sarasua
- Anje Duhalde
- Kaxiano

Amaia Antzokian
Martxoak 2
gaueko 10etan



Herri Batasuna



TXOMIN

Negoiazioaren alde
Aurrera bolie!

Tontorretatik kupeletara

Besaidek antolatuta, otsailaren 17an Bidania, Ernio, Asteasu ibilbidea egiteko aukera izan genuen.

Jende ugari hurreratu ginen autobusetaraino, baina ibilbidearen ostean aurkituko genituen jaki eta edarien ilusioaz, mendian ibiltzeko animoaz baino.

Egun euritsua eta tristea suertatu zitzaigun mendirako, baina hala ere botak jantzi eta lainopeak, serio asko, abiatu ginen puntarantz.

Eduzarratera sartu ginean sortu zitzaigun lehenengo arazoa, batak zioen handik aurrera ez zegoela urratsik; besteak berriz, handik aurrerako bidean jarraitu



beharra zegoela. Horren ondorioz, zatiketa bat izan genuen eta handik aurrera, besaidetarrok, lainopeko artalde galdua ginen. Batzu puntarako bidean. Besteak, solorik solo.

Kontua da, ura erak menditik behera etortzeko edozein erripa eta pasaleku aur-

kitzen duela eta besaidetarrok ere lainopeak nork berea egin zuten. Ezin dira, noski uraren aldatz beherako joanaren nagikeriarekin besaidetarrok gogo eta sasoi gonbaratu.


Kontua da, bazkari ordurako denok elkartu ginela mahai inguruan eta inor ez genuela ahaztu mendian; ur

guztiak batu genituen.

Baina mendiko ur kontuak, mahai inguruan ardo kontuak bihurtu ziren eta sagar ardoaren txorabioagatik edo, gero eta harrigarriagoak ziren eguneko bideak, jaitsi beharreko hormak eta zeharkatu beharreko errekek. Dena den, kontuak kontu, arriskuak arrisku, egun eder-rra Besaideren eskutik pasatu ahal izan genuena Besaideren eskutik eta mozkorren kopurua jakin nahi duenari, esan, datorren urtean gurekin etor dadila.

Horiek pe, papeleta hobbie ein zauten kupelaren aurrin, mendiko aldapa gora baino.

Hankamotza




Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.

Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

AED euskalgintzan etengabe!



UDALEKUAK.
Mila neska-mutiko urtero



MAHAINGURUAK.
Gai interesgarrienak



LITERAT. LEHIAKETAK
Sormena bultzatuz



TONBOLA.
Jaietan ere euskaraz



ARRASATE PRESS.
7.000 ale astero



ATB.
Astean 17 orduko emisioa



JAZTEN ALDIZKARIA.
Soziolinguistika jorratuz




SENTSIBILIZAZIOA.
Euskaraz bizitzeko

Hauek dira gaur egun AEDk aurrera daramatzan hainbat kultur iharduera.

Asmo ederrak ditugu etorkizunerako eta zure laguntza behar dugu.

Oraindik ez bazara, zergatik ez zara bazkide egiten?

Eskatu informazioa
Pablo Uranga
kalean dugun lokalean edo
79 54 46 telefonoan.



J. M. Muguruza
Lehendakaria

Urri Urizar.
Dinamizatzailea

J. L. Aragoitia
Idazkari burkaria



Bekak

• 1991-92 ikasturtean Lovainako Unibertsitate Katolikoan ikasteko bekak. Eskatzaileak: neerlandesa, ingelesa edo frantseza menperatzen duten 35 urtetik beherako goi mailako graduatuak. Dirulaguntza: 18.900 franko belgiar hilero, matrikula doan, aseguria eta bidai poltsa. Iraupena: 9 hilabete. Epea: 91-03-28.

• Lovainako Unibertsitate frankofonoak ikerketa edo doktoradutza-bekak. Frantseza menperatzen duten 35 urtetik beherako goi mailako graduatuentzako. Dirulaguntza: 18.000 franko belgiar hilero, aseguria eta bidai-poltsa. Iraupena: 9 hilabete. Epea: 91-03-29.

• Atzerriko Unibertsitate eta ikerketa zentruetan ekonomia eta komunitateko zuzenbideari buruzko ikasketak sakontzeko bekak. Eskatzaileak: lizentziatuak. Dirulaguntza: 1.500 \$ hilero, ma-

trikula eta joan-etorrirako bidaia. Iraupena: bederatzihilabete. Epea: 91-04-16.

Lehiaketak

• Urpeko Zinemaren Nazioarteko XVI. Zikloa (Donostia). Filmeen gaia: urpeko mundua. Formatoa: 16 mm. Lanak aurkezteko epea: martxoak 10.

• Fuengirolako Nazioarteko I Argazki-Lehiaketa. Kolorez nahiz zuribeltzez. Gai eta teknika librea. Neurriak: 30x40. Sariak: ohorezko saria, urre, zilar eta brontzezko dominak, trofeoak, etab. Lanak aurkezteko epea: martxoak 23.

• "Emiliano Barral" XII. Ipuin-Lehiaketa. Gai librea. Lanek, gehienez, 10 orritakoak izan behar dute. Saria: 90.000 pta. Epea: martxoak 26.

• Musika-Konposaketa Lehiaketa (Sevillako Ate-nea). Gutxienez, 20 minututako iraupeneko Piano-la-

nak aurkeztu behar dira. Saria: 500.000 pta. Epea: Martxoak 31.

• Urretxuko Udaleko Argazki Lehiaketa. Gai librea. Edozein teknika onartuko da, zuri-beltzezko negatibotik abiatuta. Sariak: 20.000, 15.000, 10.000, 5.000 pezetako 3 sari eta garaikurrak. Epea: apirilak 11.

• Getxoko XV. Nazioarteko Jazzaldia: Talde Lehiaketa. Sei talde aukeratuko dira; bakoitzari 175.000 pta. emango zaio, dieta kontzeptuan. Sariak: 1.) 200.000 pta., disko baten edizioa eta trofeoa, 2.) 150.000 eta trofeoa eta bakarlari onenari 100.000 eta trofeoa. Izena emateko epea: maiatzak 18.

Lan-ihardunaldiak

• Egun hauetan lan-ihardunaldiei buruz informazio bila zatoztenak asko zaretenez, izena emateko epeen berri emango dizuegu:

- Nazioarteko eta Estatu-tukolan-ihardunaldietarako: maiatzaren 2tik 27ra arte.

- Euskadirako: maiatzaren 13tik 27ra arte.

Beti bezala, epea zabaldu bezain laster etortzeko gomendatzen dizuegu, plazak segituan banatzen bait dira. Eskaintza zabala izatea espero dugu.

Ikastaroak

• 17 eta 25 urte bitartekoentzat, Belauntzi ikastaroak. Teoriko eta praktikoa. Iraupena: 2 asteburu (guztira, 25 ordu). Hasiera eta hobakuntza-mailak. Modalitate ezberdinak (belauntzi arina, gurutzontzia, T. D. V. /Funboard). Donostian eta Hondarribian. Prezioa: 9.640 pta.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

**ANALISI KLINIKOAK,
LABORATEGIA**

I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebiosa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxebeha, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

ALTUNA
*Lurrindegia
bisutegia
drogeria*

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

ETXEBIZITZAK

- Donostian etxebizitza konpartitzeko txororik baldin baduzu deitu 79 24 52 tfnora. Joseba.
- 45m²-ko lokala saltzen da oso merke. Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. Astearte-larunbata bitartean, 9etatik 1era.
- Logela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza salgai Zarugalde kalean. Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- Errenteria aldean lan egin behar dut; etxebizitzaren batean logela librerik ezagutuz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- Etxebizitza salgai Zaldibarren, berritua eta prezio onean. 78m². Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora., gaueko 9etatik aurrera.
- Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenetik ostiralera gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- Neska behar da etxebizitza konpartitzeko Arrasaten. Tfnoa: 59 39 79.

LANA

- OHOKo klase partikularrak ematen dira euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19. Itziar.
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.

- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest. Deitu 79 78 65 tfnora.
- Fisika klaseak ematen dira. Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95.
- Erretegi batean astebukaeretan lana egiteko bi emakume behar dira. Tfnoa: 76 22 68.
- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. Tfnoa: 79 62 89.
- Andrak etxeko lanak egingo lituzke, orduka. Tfnoa: 79 15 56.
- Emakumea behar da Gastelzen etxeko lanak eta umea zaintzeko. Tfnoa: (945) 23 29 74 (gauetz).
- Kimika klaseak hartuko nituzke (1. Injinerutza) Tfnoa: 80 12 54.
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 04 21
- Hiru gaztek buzoneoa egiten dute Oñatin 3 ordu t'erditan. Tfnoa: 78 07 72.
- Etxez-etxe drogeria produktuak -bizarra kentzeko labanatoxak eta makinilak- saltzeko jende bila gabiltza. Argibide gehiago 76 60 00 tfnoran.

SALEROSKETAK

- Adl mendizale!
 - Kastinger goi-mendiko plastikozko botak, barreneko botinaz 40-41 zenb.
 - Kamet larruzko goi-mendiko botak 43 zenb.
 - Camp markako kranoiak eta pioleta salgai. Nahiko merketxo. Interesatuak deitu 79 92 92 tfnora. Juan Carlos.
- Orbea Mustang mendiko bizikleta, kalapiesak, argia, llanta eta pinioi berriak. Egoera oso onean 40.000 pta. Gutxi erabilia. Tfnoa: 79 54 65 egunero gauetz. Garikoitzez galdetu, 9.00etatik 11.00etara.

- Karro denda berria salgai. Tfnoa: 799055 (94) 681 75 06.
- Sukaldeko mahaia eta aukia erosiko nituzke. Tfnoa: 79 59 72.
- Opel Kadet-erako portaeskia salgai. Tfnoa: 79 45 39. Josefe.
- HI-FI ekualizadore ezin hobea salgai. Digitala eta analizadorearekin, mikrofonoa ere badauka. Prezio onean. Interesatuak dei 79 47 90 tfnora. Javi.
- Larruzko butaka beltzak saltzen ditut. Estreinatuta gabe eta oso prezio onean. Tfnoa: 79 52 80
- Moulinex mikrohina salgai, oso berria eta oso merkea. Tfnoa: 79 06 63
- Yamaha 250 Special-a salgai. Tfnoa: 88 28 63 Aste bukaeratan.
- Furgoneta isotermikoa salgai eta berarekin lan finkoa izateko aukera. Deitu 9.00etatik 12.00 etara 94 - 17 24 16 Tfnora..

DENETARIK

- Kalxo Arrasate! Gaur Arrasate Press ailegatu zaigu. Beti bezala askotan pentsatzen dugu zuetaz. Zer moduz euskarazko klaseak, Karmel, Isi eta Esteban? Gora euskara? Sharryn eta Geoff.
- Gazte batek buzoneaketa lanak egingo lituzke Interesatuak dei egin 79 80 55 telefonora eguerdiko 2.30etatik 5etara eta gaueko 7.30etatik aurrera.
- Udaberria datorrela eta, esnatu da Jo ta fuego. Amona goixorik egon arren badu oraindik indarrak; beraz, hemendik aurrera Jo ta fuego. Aste santuetan bileratxo bat egitekotan gabiltz, joan prestatzen, ordurako amona dendatukoda eta.



ARRASATEN HILDAKOAK



- Berezibar Azula, Marcelino.
Otsailaren 20an. 84 urte.
- Jiménez Zapatel, Rosario.
Otsailaren 22an. 94 urte.
- González Usubia, Wenceslao.
Otsailaren 24ean. 78 urte.
- Ezkurra Areitio, Julia.
Otsailaren 25ean. 89 urte.
- Cáceres Marcos, Martina.
Otsailaren 26an. 91 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Txutxi Romero Kajoi tabernakoa



- **Bezeraok, emakumezkoak ala gizonezkoak?** Gauza bakoitzak du bere garaia, emakumeak arratsaldez eta gizonak gauzez.
- **Gosaltzera etortzen den jendea ala bazkalostean etortzen dena?** Bazkalostean etortzen dena.
- **Tabernan, musika ala telebista?** Musika
- **Lana, bazkalostean ala afalostean?** Afalostean hobeto.
- **Salda ala kafea?** Kafea
- **Motorrak ala autoak?** Motorrak ez zaizkit gustatzen.
- **Herrian ibiltzeko, oinez ala autoz?** Urrun joan behar badut autoz, baina bestela oinez.
- **Tabako beltza ala gorria?** Ez dut erretzen.
- **Esnatzerakoan, ezkerreko hanka ala eskumakoa?** Ni neu ezkertia naiz, baina normalean lehenengo eskumako hanka ipintzen dut.
- **Nobelak ala komikiak?** Ez zaizkit gustatzen ez batzuk eta ez besteak.
- **Telebistan, kirola ala pelikulak?** Kirola nahiago dut.
- **Tabernak ala pub-ak?** Tabernak hobe.
- **Edariak, izotzarekin ala barik?** Niretzat badira, izotz barik.
- **Zapatak ala zapatilak?** Zapatak.
- **Udalaitz ala Besaide?** Berdin dit, hemen behetik ikusteko...
- **Zenbakiak ala letrak?** Zenbakiak.
- **Haragia ala arraina?** Arrain onea ez bada, haragia nahiago izaten dut.
- **Dantza, sueltoan ala lotuan?** Sueltoan hobeto moldatzen naiz.
- **Entzun ala hitz egin?** Ez naiz gehiegi hitz egiten dutenetakoa, entzutea gustatzen zait.
- **Kartetan ala dadotan?** Ez dut jokorako zaletasunik.
- **Hondartzan, igeritan ala eguzkia hartzen?** Eguzkia hartzen gustorago, igeritan nekatu egiten naiz eta.

Artxibotik

"Coplas al nabo" (eta II)

Orain duela hamabost egun hasiriko ekinaldiari bukaera jarriko diogu gaurkoan. Zertxobait gogoratzekotan, gogoratu bertsoak 1661ekoak direla eta Arrasateko Udaletxeko Artxiboetan daudela. Egilea dela ta ezer ez dakigu. Baliteke orduko udal eskribanoak jarritako bertsoak izatea, baina ezin daiteke gauza segururik esan letra desberdina da eta.

Gaur egun, inork idatziko ote lituzke bertsoak? Ematen du gero eta formalagoak garela eta, hori, ez da gure onerako.

Fue Teresa a su majuelo
la bispera del si santo
con olalla su bezina
hija de pedro garvancho
donde estubieron solas
y merendaron de espacio
a cavada la merienda
y andandosse passeando
cogiendo unas yerbesitas
de las que cojen por mayo.
La bentura de Teresa
le trejo a allarse un nabo
redrojo por su desdicha
de muchos que allí sembraron.
A penas levido estar
cuandos las yerbas cortando
le asio de las verdes ojos
para poder arrancarlo.
Tal fuerza pusso teressa
y tanto estubo tirando
que bino a caer despaldas
con el nabo entre las manos.

Doliolle bien la cayda
mas contenta de sacarlo
sin llevararse de el suelo
le dize a questos regalos
ay nacio de mi contento
bendito el que te ha criado
y bendita la simiente
en que fuystes engendrado.

A. O.

comercial
san juan

Garibai 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO
Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Txomin Iturbe Iturripen. 1968

Argazki hau atera zenerako Txomin ETAn zegoen sartuta. Amat eta baserriko lanek uzten zioten denboran hara eta hona ibiltzen zen, bilerak egin eta propaganda politikoa zabaltzen. Behin baino gehiagotan, entrenamendu egunetan, Mondra taldeko haren konfidantzazkoek propaganda pape-
rak aurkitu zituzten poltsikoetan. Banatzailea Txomin zen.

Mondraren jubenetan hasi eta handik Aretxabaletako UDARA joan zen. Han bi urtez jokatu eta gero, Ramos eta Gonzalezekin batera, Arrasatera etorri zen, Mondran jokatzera. Futboleko ezagutu zutenek ausarta eta bizkorra zela diote.

Txominen militzantziaren berri zutenak larri ibiltzen ziren, entrena-
menduetan batipat, goardia zibilak - Chino eta- egoten zirelako. Txabi Etxebarrieta hil berritan, partidua izan zuten Pasaian. Benta Haunditik pasatzerakoan, gerta zitekeenaren aurrean autobusekoak estu zihoazela, Txominek lorak utzi zituen ETAkidea hil zuten lekuan. Arratsalde hartan, ordea, haren atera hurbildu ziren bakoitzean gol egin zioten pasaita-
rrek. Zazpi eta hiru galdu zuten.

Handik gutxira, *Re-renean* Dorronsoro harrapatu zuten egunean, Txominek alde egin zuen Iparraldera, Etxazuri, Amat eta Mondra atzean utziz.

**PUB
HAIZEA**



ENARA 
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32

LA ASUNCION IKASTETXEA





Soluzioa →

Saia zaituz kolpe batez eta toki batez bi bider pasa gabe marrazki hau egiten.

4. maila


Arrasate presko onda heltzen zaizue?

5. maila



3. maila

Zer sentimendu adierazten dute?
 Txaraldia alaitasuna
 Fustura seriotasuna



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
 EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
 HELBIDEA.....
 HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

HELLO, NEW YORK

Ez zegon ezer onik hiregan. Horrexegatik maite haut.

AVENUE OF AMERICAS

Aukera dezagun :
elkarrekin egon
eta batak bestea zoritzarreko egin.

Ala oraintxe banatu eta
zoritzarreko izan
nor bere aldetik.

FIFTH AVENUE

Irribarrea jantzi dinat. Dena dun eder.

J.M. FONOLLOSA
Ciudad del hombre: New York, Sirmio, Bartzelona 1990.
Itzulpena: J.I.

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04




J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate

4 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua.** Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan San Andresko herri eskolan grabatua.
- 20.00 **Berriak**, asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.20 **Mondrasport**, ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabarriak zuzenduta.
- 20.35 **Saltsa Maltan**, Jaione Olabek bizkotxoak, txutxoak eta beste pastelxo asko prestatuko ditu.



- 20.45 **Erreportaia:**
20.50 **Berriak** (errepikaldia)

5 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua.**
12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
12.30 **Berriak** (bezperakoa)
12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
13.05 **Saltsa-Maltan** (bezperakoa)
13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
13.45 **Erreportaia** (bezperakoa)
14.00 **Berriak**

6 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua.**
20.00 **Berriak**, Arrasateko aibistegia, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Gaia: Emakumearen egoera.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)


7 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua.**
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
13.10 **Berriak** (errepikaldia)



8 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
20.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Jose Angel Langaran, "Txikito de Veneras" pilotari famatua. Ikastolak eta beste erakundeen aldeko partidu asko jokatu izana.



- 20.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Pepek egiten duten saioa.
Berriak (errepikaldia)

9 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
12.00 **Berriak**(bezperakoa)
12.20 **Erretratoa**(bezperakoa)
12.50 **Musikantoi**(bezperakoa).



Berriak (bezperakoa)

SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07

Telebegi

Jendeak kaletik agurtzen zaitu, nahiz eta zuk inondik inora ez ezagutu. Eta gainera espero dute zuregandik nolabaiteko erantzun "berezia", betidaniko adiskideen artean egoten diren horietakoa. Esperientzia bixia da, batzuetan atsegina eta beste batzuetan ez hainbeste, baina, hori bai, jende gutxi edukiko ohi duena seguruenik. ATB honetan nabilenetik gero eta gehiago da ezagutzen nauden Arrasateko jendea eta, hasiera batean begirada iheskor zenbait baino ez banuen nabaritzen, orain ez dut harritu behar baldin eta nere atzetik "ATB! ATB!" oihuak entzuten badituz, ume batzuek esanda edo erosketak egiten ari naizela, ondoko andrak galdetzen badit ea zergatik ikusi zen hain gaizki lehengo eguneko saioa edo noiz eman behar ditugun filmak edo...

Pantailan agertzeak eragiten ditu guzti horiek. Eta atzean dauden guztien lanak ez du hainbesteko eraginik jendearengan, nirea baino askoz luzeagoa eta sakonagoa den arren. Telebistaren injustiziak dira.

Koldo Rodriguez



Pozik asko zeuden **Jabi Ozaeta** eta

Josune Biteri joan den asteartean erosketak ere euskaraz egin daitezun

telebistarako iragarki bat grabatzen zuten bitartean. Iragarkia Udaleko Euskara Zerbitzua ari da egiten.



Oscar Perezentzat izan

zen Arrasate Kirolakek otsailean erregalatu zuen irristola. Oscar Mercedariatan ikasten ari da, 5. mailan.

Zorionak!

Telebelarri

◆ Oso gogorra izan da irakasle-praktikak Gizakia Helburukoekin egitea, bai eurentzat eta baita niretzat ere, baina merezi izan du»

Jon Etxabek Zenbat buru, hainbat aburu saioan.

◆ Managuako haurtzaindegi antzerako batean egon nintzen. Anderefoek ez zuten prestakizun berezirik. Arratsaldero heziketaz eta, hitz egiten genuen».

Izaskun Benitok Zenbat buru, hainbat aburu saioan.

◆ Kuriosidadez eta aldatzeagatik aukeratu nuen irakasle praktikak Martuteneko espetxean egitea».


Amaita Mujikak Zenbat buru, hainbat aburu saioan.



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Laguna badaukazu komunikazio ezin hobea izango da bion artean; izatekotan bazara, ez egon dudamudatan, zoaz harira maitagarri egongo zara eta, ez bait da erraza izango ezetza jasotzea.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Bikotearen arteko harremanerako daukazu kontzeptua birplanteatu edo finkatzea komenigarri izango zaizu aurrera egin nahi baldin baduzu. Izan ere, gorabehera ugari bait daukazu eta oreka pixka bat lortu beharko zenuke.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Jator jokatu duzu jende guztiarekin; ideiak garbi izango dituzu; aholkulari ezin hobea izango zara ondoz. Bestalde, aurrean daukazu egin behar oro esfortzu handirik egin gabe gauzatu ahal izango duzu daukazu lasaitasunagatik.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Buelta eta buelta ematen ari zara harreman honi ez bait da zuk uste bezalakoa suertatu. Printze eta printzesa kontuak ipuinetan ematen dira, Taurus. Ez duzu izango barne pakerik lortu txikikeriei behar baino garrantzi handiagoa ematen diezun bitartean.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Lan arloan aurrerabidea lortu nahian zabilta burubelarri, Virgo, aurreragoko nahi batzuk estali asmoz. Ondo ari zara, baina lehentasuna eman beharko zenioke bihotzean daramazun hutsune honi betetzeari.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Melankoliko samar egotea suerta liteke, ohi ez bezala erabakiak tuntunean hartuko dituzulako. Ez zaizu gaizki etorriko egoera hau ezagutzea zuhurtasunetik kanpoko giroaz jabetuko zarelako. Dena perfektua izatea ezinezkoa da, Capricorn.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Zure sentimentuak adierazi beharra nabarituko duzu eta ezin izango dituzu zuk nahi izango zenituzkeen bezain argi azalduko. Askotan berba ez da beharrezkoa komunikaziorako Gemini, badaude beste medio batzuek.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Maitasunerako jaioa zara eta askotan maitemintzen zara. Laguna eta bion arteko harremana beti kilikolo dagoen ustean bizi izaten zara beti Maitasuna eta adiskidetasuna bereizten ikasiz gero lortuko zenuke, bai, maratila horretatik askatzea.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Astindu edarra ematen ari zaizu bai Saturno. Honez gero igarriko zenuen bizimodua ez dela orain arte uste izan duzun bezain erreza. Murrak jartzen zaizkizu aurrean eta bota ezinezkoak irudituko dira. Denborak erakutsiko dizu, bai, ezinezkorik ez dagoela.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Erasokor egongo zara etxean, Cancer, ez bait duzu ezer entzun edota egiteko egonariarik izango eta parean tokatzen zaizun orok horren ondorioak jasan behar izango ditu. Ariketa fisikoa egin beharko zenuke energia gaizto horiek kanporatzeko.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Bihotz oneko egongo zara parean tokatzen zaizun edonorekin, ulergarritasuna bait da datozen egunetan garatu nahi izango duzun gaia. Nekez harrapatuko zaitu haserreak eta osasun oneko egongo zara.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Sartu da Eguzkia Piscisen esparruan eta indarra eta irudimena izango dituzu, batez ere, puri purian. Ezina dela medio edo, alde batera lagata zenituen egin beharretan eskuhartzeko une aproposa oraingoa.

HITZALDIA

Baltikoko herrialdeen egoera: Lituania, Letonia eta Estonia.


Hizlariak: **PABLO SASTRE** eta **JOKIN APALATEGI**

Martxoak 4, astelehena

Arratsaldeko 7etan, Monterronen



DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

MUGARRI

Berri-berriak



Escort



Orion



Ford modelo berriak